Por «vez» en B se emplea también *bider*: *bi bider* (1), *hiru bider*, *lau bider* «dos veces», «tres veces», «cuatro veces». Pero *bider* no es un nombre, como lo es *aldi*. No puede declinarse. Es forma invariable. No recibe el artículo ni otros sufijos (2).

(1) *Bi bider*. Es curioso que el numeral *bi* «dos», que en el dialecto vizcaíno se pospone —*berba bi* «dos palabras»—, sólo cuando acompaña a *bider* se antepone.

(2) Por eso la creación *bidertu* «multiplicar» (lit. *vecear*) es a todas luces extraña y contraria a la índole de la palabra *bider*. — **Michelena apostilla:** *Bider* es también guipuzcoano general y altonavarro hasta Oyarzun por lo menos: parece claro que tiene que ver con *bide* (caso declinado?). También dicen ahora *biderkatu*.


L. Villasanteren *Estudios de sintaxis vascan* Mitxelenak egin-dako "apostilla" sonatuetako bat.

Mitxelenaren obran, maiz aurkituko ditugu esaldi lauso samarrak itxuraz, baina hiztunarentzat, eta batez ere gramatikariarentzat, intentzio bihurritz gainezka datozenak. Honako hau bezala:

Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak, (...) larruazaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu (*Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, 386).

Tarteka-tarteka, Mitxelenak beti eskaintzen digu keinuren bat edo beste euskal gramatikari buruzko gogoetarako gonbita egiten diguna. Nik behintzat, halakotzat hartu izan ditut goiko perpaus hori bezalakoak eta maiz saiatu naiz ikasleak ere gogoeta horretara eramaten.

Patxi Altunak, gramatikari peto-petoa eta Mitxelenaren miresle handia izan zenak "Euskarren batasun bideak" artikulua sarreran ezarritako hitzekin amaitu nahi dut lantxo hau: "lehor eta antzu samarra iritziko dio batek baino gehiagok txosten honi. Baina azkeneraino irakurtzen irauteko kemenik baldin badu, lehen ataletako lehorra gozo, eta antzua jori bihurtuko zaio azken atala irakurtzean. Hor adierazten baitigu, euskal prosak, gauzak emeki eta soilki esatekoak, nolako beharko lukeen izan". Hala uste dut nik ere.



Goiko Kalea. Antonio Valverde, *Ayalde*, 1958.

Koldo Mitxelenaren ekarpena euskararen historiari

Joseba A. Lakarra

“**N**i hizkuntzalaritzaren historia-liburuetan, hauen egileen ezjakintasunagatik edo haien harrokeriagatik, desagokienik aztertzen den neogramatikoen korrante zaharreko kide berankorra nauzue, lehenbizikoz hizkuntzalaritza (= hizkuntzalaritza historikoa) zientzia bilakatu zuten haietarikoa”. Hitzok ezarri zituen —eta horrela inork egin lezakeen baino hobeto definitu bere burua—, non eta *Fonética histórica* vascaren 2. argitalpenaren buruan.

Benetako gerla batean, ondoko kartzelaldian eta sasian hainbat urte eman ondoren, 50en hasieran Mitxelenak euskal etimologiaren oinarriaz idatziaz —hots, euskalaritza historikoaren hatsarrien garbiketa batez— hasi zuen bere jarduna. Handik aurrera bazterretako dialektoetan nahiz lekukotasun zaharretan datuak bilatu eta analizatzeaz gain (Landucciren Gasteiz aldeko 1562koari jarri hitzaurre bikainean, demagun), gogoeta teorikoak ere plazaratu zituen, inoiz bertoko aldizkari batean laburtuaz —zabaldiaz eta sendotuaz, hobe— “Amerika (oraindik) urrunetan” atera berria (Martineten aitzineuskarazko herskariena), bertoko zaletuak neka ez uxa ez zitezen.

1963an, *FHV*tik bi urtetara, *Sobre el pasado de la lengua vasca* baino bat lehenago, argitaratu zuen *Lenguas y Protolenguas*, hirukote nagusiaren harkantoia; ez da gainerakoak hura gabe ulertzerik. *FHV* eta *SPLV* eta “Las antiguas consonantes”,

La aportación de Koldo Mitxelena a la historia de la lengua

Koldo Mitxelena fue el vascólogo (“neogramático tardío” decía él) que consiguió que la historia del euskera se cultivara según los estándares universales. Frente a la anterior búsqueda arbitraria de parentescos, sin recons-



Mitxelenak *FHVn* (edo “Las consonantes” en) bilatzen zuena sinplea zen, ez erraza: aitzineuskara berreraikitzea, hortik lekukotasun zahar eta berriagoetarako bidea berreginaz hizkuntzaren historia egiteko. Bere jomuga iritsi zuela fruituek dioskute ozenki: 50 urte geroago, haren sistema darabilgu funtsean eta haren 1400-1500 etimologiek euskal linguistika diakronikoa sostengatzen jarraitzen dute, gainerako tradizioetan bezala (Watkins *dixit*). Zenbait ohar eta osagarri eskaini ahal diegu haren berreraiketa eta etimologiei, baina Mitxelenaren eskua antzeman liteke guztien gainetik.

Hau ez da haren askaziko izan nahiak eragin lilura edo “zeharbideko antuste”, Mitxelenak berak 80etako gazte ausarten baten Chomskyrekiko admirazio neurrigabea salatuz bezala. “Euskararen ikerketa historikoa eredugarri izan liteke gainerako hizkuntza isolatuen ikerketarako” esanaz amaitzen zuen 2011n Lyle Campbellek KM Katedraren Biltzarreko artikulua. 1988an lehenengoz atera zenetik, haren *Introduction to historical linguistics* da mundu mailan era horretako lanik ospetsuena eta ez arrazoirik gabe, jende gutxik biltzen baitu bere baitan egilearen ezagutza aparta hizkuntzalaritza uraliko eta amerindioan, bide batez, indoeuropar, germaniko, erromanikoan... gehienok baino hobeto moldatuaz. Horko “§6.2.2. How can we advance knowledge of the history of language isolates?” zatian mundu osoko ikasleek barne berreraiketa, berreraiketa konparatua, mailegaketa eta “hitzak eta gauzak” metodoek egiteko garrantzitsu horretan eskura dezaketenaren adibide gisa, euskararen lortutakoa da aurkeztu bakarra (170-2). Ba ote inor ezusteko laudorio eta arreta horren %99 edo gehiago Mitxelenaren jardunari aitortzen ez dionik?

Nik, aurrez aurre Gasteizen ezagutu nuen 1979-80an eta liburu eta artikuluetan lehenago irakurria bere Euskal Filologiako sei ikastaro (fonologiak, historiak eta bina linguistikaz eta testuez) eta hizkuntzalaritza indoeuroparreko zoragarri batez osatu nuen —“Lengua común y dialectos vascos” aurreko hitzaldi zirraragarria ere gogoan dut—, han-hemen argitaratuetarik (gero *Lengua e historian*, *Palabras y textos*, *Sobre historia de la lengua vascan* eta arestiago, bere Obra Guztietan bildura) falta nituen zenbait gehituz.

casual que ésta comenzara con “De etimología” (1950), mostrando la debilidad teórica y metodológica anterior.

Lyle Campbell, en su mundialmente famosa *Introduction to historical linguistics*, 3ª ed. (2013), desarrolla un único ejemplo de lo que puede obtenerse en la investigación de la (pre) historia de lenguas aisladas genéticamente: recurre, precisamente, a la labor realizada en torno a la prehistoria de la lengua vasca. ¿Cree alguien que el 99% de semejante mérito no corresponde a Koldo Mitxelena?

Gogoan dut lehen urtean Sarasolaren ikasgai-rako prestatu nuela Betolatzaren dotrinaren hiztegia eta hark esan zidala jefek nirekin hitz egin nahi zuela lana *ASJU* delako batean argitaratu baino lehen. Han ginen Ibon eta biok isilik orriak gora eta behera zerabiltzan bitartean eta harako batean, begiratu eta holako zerbait bota zidan: “eta... alegia, esan ahal didazu zergatik lapurtera zaharrean *alhaba* <h> batez idazten zen?”. Harriturik, “ba, ez dakit... baina uste dut zuk zeuk ere horixe zenioela *FHVn*”, erantzutera ausartu nintzen. “Bai, ba, horrexegatik galdetzen dizut” jaso nuen ordainetan; jardun honetan maila bera itxaroten zen, antza, katedradun helduarengandik eta hasi-asmotan zen ikaslearengandik.

Hurrengo ikasturtean Barrutiaren *Actoaren* edizioa prestatzen ari nintzela jakinik, garai hartan ohiko ziren grebetariko batean bi goiz oso hartu zituen nire lana neurekin batean hasi eta buka begiratzeko. Txunditurik nintzen bere denbora urriarekin erakutsi eskuzabaltasunarekin. Amaitu eta iradokizunen bat eman ondoren, “eraman iezaiozu Agudi atera dezaten” esatean, nik “eskerrik asko, baina zeure izenean behar luke” ihardetsi nion —testuko 512 lerroetarik eta haiei zegozkien oharretarik ez zuen bat ukitzeke utzi—; berak, ordea, “aizu, horretarako gaude” iltzatu zidan buruan. Euskararen historiaren ikerketan eta linguistiko historikoan dihardugunok nekez dugu ahaztuko!

Ez dago gizonaz etsitzerik

Kritikaren inguruan, Mitxelenaren eskutik

Anjel Lertxundi

Mahaiaren inguruan eseri orduko, bat etorri ginen epaimahaiko guztiok: 1978ko Irun Hiria sarira aurkeztu ziren bospasei nobelen artean, *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* izenburua zeramana zen onena. Bost minutu, eta lana bukatuta. Plika irekitzea eta akta sinatzea falta zitzaigun. Hala uste genuen, behintzat. Baina Koldo Mitxelenak liburuko hainbat gorabeherari buruzko tertulia piztu zuen. Kontakizunaren nondik norakoak, nobelaren ezaugarriak, narrazioak egiten dituen joan-etorriak denboran atzera eta jauzion albainulana. Gero, bertan egiten diren gerra garaiko erreferentziak izan zituen hizpide. Autoreari buruzko kabalak ere egin zituen, baina liburuan irakurritakoaren arabekoak ziren guztiak. Eta bere jardunaren harian, galderak egiten zizkigun, gure iritzia kontrastatu nahi zuen. Egilearen plika irekitakoan, ni bainintzen Joxe Austin Arrieta ezagutzen nuen epaimahaiko bakarra elkarrekin ikasiak ginelako Donostiako apaiztegian, egileari buruzko galderak egin zizkidan, eta kabalak ere egiten hasi zen Joxe Austinek ba ote zuen zerikusirik Koldok gerra garaian ezagutu zuen Arrieta batekin, nobelan agertzen zen pertsonaia bat Alde Zaharreko halako baten isla ote zen, eta halako aieruak...

Beste generoetako saria (olerkia eta antzerkia, oker ez banago) nori eman eztabaidan ibili ziren epaimahaietako kideek baino beranduago bukatu genuen guk gure jarduna. Inoizko literatura kritikako klase ederrena gozatu izana gordetzen dut memorian. Gozatu nuen gehiagotan ere Koldo Mitxelenarekin mahaikide izateko zoria bai Irun Hiriaren beste hainbat ediziotan, baita Eusko Jaurlaritzak bere hastapenetan antolatu zituen sarietan ere. Bilera guztietan ikasi nuen (egokie-

Rigor y estilo en las críticas de Mitxelena

He tenido la fortuna de compartir con Koldo Mitxelena ser jurado de varios premios literarios. Conservo en la memoria las apasionadas lecciones de crítica literaria que nos impartía, sin él pretenderlo, en aquellas ocasiones. En todas ellas aprendí de su rigor.

Aquellas exposiciones orales eran, al fin y al cabo, la aplicación práctica de su quehacer de crítico fílmico y literario, del que tanto aprendíamos y gozábamos en la revista *Egan*. El procedimiento crítico de Mitxelena se basaba en dos pilares: la obra y el contexto. En primer lugar partía, como debería ser preceptivo, de una lectura o visión concienzuda de la obra (se adentraba en ella, tomando apuntes, haciendo anotaciones aquí y allá) y después la relacionaba con su contexto social, estético. Siempre en este orden; el segundo paso estaba siempre en función del primero, procedimiento tan alejado del que la crítica actual más al uso practica.

Mitxelena enmarca desde el inicio de la crítica el tema del libro o de la película, y apunta

rak eskaintzen zuena baino gutxiago, seguru asko) errenteriarraren zorrotzasunetik.

Ordurako ezagutzen nuen, *Eganen* irakurrita, Mitxelenaren hainbat liburu iruzkin eta zinema kritika, asko ikasia nintzen eta gozatu handia hartua haiek irakurrita. Aipatu epaimahaietan ikusi nuen, ordea, zuzenean eta modu praktiko askoan, zein zen Mitxelenak jarraitzen zuen prozedura: haren begirada obraren barruan sartzen zen lehendabizi, testu barruko giltzak interpretatzen zituen eta haien bilakabidea aztertzen. Azpimarrak egiten zituen sarietako originaletan, apunteak hartzen zituen originalotan *in margine* eta paper muturretan. Hori zen bere prozeduraren lehen pauso: obraren ezagutza ahal zuen osoena. Baina ematen zuen bigarren pauso bat ere: obran ikusitakoa bertan ikusten zenaren testuingurura

desde las primeras líneas de sus escritos el tono en el que va a desarrollar sus comentarios. Siempre agudo, no imparte “doctrina” al escritor o al director de cine, los respeta, y cuando señala las deficiencias que percibe (a veces de manera implacable), lo hace provisto de argumentos.

Las críticas de Mitxelena son ejemplares, no solamente por lo expuesto en ellas. La labor crítica que desarrolló en la revista *Egan* —casi a modo de entretenimiento y desahogo entre las tareas más arduas de la Lingüística y la Filología— era sólo parte de una pluralidad temática que consiguió convertirla en una revista cultural de referencia, digna y diversa, y escrita en euskera, en aquel páramo cultural de los oscuros años 60.



A. Lertxundi, K. Mitxelena, I. Sarasola, J. San Martín eta Amatiño. Irun Hiria Literatur sarien XI. lehiaketako epaimahaikideak. 1980.

ekartzen zuen, obra artistikoa obra hori gauzatu zen garaiarekin eta garaiko joera estetikoekin alderatzeko. Lehendabizi, obra bera. Ondoren, obrak bere testuinguru estetiko eta sozialarekin zeukan lotura edo haustura.

Obra eta testuingurua: Mitxelenaren liburu eta zinema kritika guztietan agertzen dira, alde edo moldez, bi pausoak. Baina bigarrena lehendabizikoaren ondoren dator, eta lehendabizikoaren zerbitzura dago. Testuinguruaren ezagutzak lagundu egiten du, makulu bat da, osagarria. Eta arrisku handi bat du: testuinguruari buruzko gure aurreiritziek obraren irakurketa bihurritu dezakete. Obra baten giltzak obraren beraren baitan daude. Ez dago beste misteriorik, kontu jakinak dira. Edo hala behar lukete behintzat: gaur nagusi den kritikagintzak baluke zer ikasirik... ikasteko premia aitortzeko apaltasunik balu.

Baina Mitxelenaren kritikak ez dira horregatik (soilik) eredugarriak. Hizkuntzalaria zen bera, sona handikoa, ez zegoen lan faltan, aitzitik baikik. Dibertimendu edo atsedean gisa hartzen omen zuen kritikak idazteko zeregina, hala aitortzen zion hartaz galdetzen zionari. Bazegoen, ordea, beste arrazoi bat: xera berezia zion *Egan* aldizkariari eta etengabeko lana egin zuen hura sortzen lehendabizi, hobetzen gero, ugaritzen eta koloreztatzen azkenik kultur gaien abaniko ahalik zabalarenekin. Adibidez, zinemaren edo artearen inguruko ekarpenekin. Begi-ninian zuen euskarazko kultur aldizkari duin bat lortzea, eta denon bistara dago zer nolako etekina atera zion *Egani* garai ilun haietan —ez Mitxelenak bakarrik, egia—, baina Mitxelena gabe ezin.

Hizkuntzalari handiak kritikagintzaren zeregin ustez apalari ekiten zionean, ez zuen pulpitutik hitz egiten, ezta bere mailako jendearentzat ere (ez naiz ari, jakina, hizkuntzalaritzarekin zerikusia zuten liburuen iruzkinei buruz). Errespetua zion idazle ofizioari, errespetua zinema-zuzendarien lanari ere, eta Mitxelena ez zen haien gainetik jartzen, ez zuen dotrinatzen, akatsak seinalatzen zituenean argumentuekin izaten zen. Beti. Zorrotza zen, eta alditan gupidagabea ere bai, baina egilearen akatsak eta jarrera desbideratuak handikeriak eraginak zirenean.

Liburuen edo filmen gaia hasiera-hasieratik hesitzeko maisutasuna erakusten du Mitxelenak eta kritikak izango duen tonua markatzen. Aski izango dira hiru adibide.

Honela hasten du Villasanteren *Historia de la literatura vasca* liburuaren erreseina: “Hemen duzu, irakurle, zuk eta nik eta beste askok aspaldian nahi eta behar genuen liburua: hemen arkituko dituzu, bestetara jo gabe, euskal idazle eta euskal obren gainean behar zenituen berri ugari eta zehatzak”. Laburbildu du esango duenaren mamia, piztu du irakurlearen arreta.

Aurreiritziak baldin baditu obra bat juzkatzeko orduan, erreparorik gabe aitortzen ditu, hala nola Ingmar Bergmanen *Zazpigarren seilua* filmaz ari denean. Hasieratik abisatzen digu: “Lotsatzen banau ere, aitortu beharrean naiz ia arrastaka eraman nindutela Ingmar Bergmanen ‘El séptimo sello’ ikustera, baina zorionez eraman ninduten, arrastaka bada ere”.

Hona Roselliniren *Il generale Della Rovere* filmaren kritikaren hasiera ere: “Hiru pekatari ezagun ikusten ditugu hobe bidean film mingots bezain pizkarri honetan. Hona, beraz, dakarkigun ikasbidea: ez dago gizonaz etsitzerik, zein ere galdua dirudien hondamendian barrena”. Irakurleak badaki, filma ikusi ez badu ere, zein den pelikularen mamia, zertaz jardungo zaion Mitxelena. Jardun hori testu literario moduan antolatua dago, batez ere zinema kritiketan: esaten duenak bezala dute garrantzia esateko moduak eta esandakoaren egituraketak. Eta irakurleak beti topatzen ditu sorpresak Mitxelenaren kritiketan, adibidez deskubritzen duenean zeintzuk diren aipatu Roselliniren filmaren kritikako hiru bekatari ezagunak: pelikulako protagonista (Della Rovere), jeneralarena egiten duen aktore nagusia (Vittorio de Sica) eta zuzendaria (Roberto Rosellini). Della Rovere bere ibilbide militarrean, eta Vittorio de Sica zein Rosellini aipatu filmaren aurreko lan artistikoetan norabiderik gabe eta baldar ibiliak ziren. Mitxelenak “ez dago gizonaz etsitzerik” esaldiarekin erredimitzen ditu hiru bekatariak, erredimitzen gaitu.

Torrekuatik: Mitxelena alboan

Juan Ramon Makuso

Aitzakia bat dut. 2015eko *Oarso* urtekarian idazteko gonbita jaso dut. Ofiziala. Udaletxetik, eta *Oarso* urtekariaren idazketabat zordetik. Norberaren herriko erakunde batetik gonbita jasotzeak errespetua sortzen du. Eta ardura ere bai. Baina aurtengoan, egon da berezitasun bat. Haurtzaroko eta institutuko kide baten gonbidapena. Elixabete Perezena. Lekuak, uneak, melankoliara eraman ninduten. Ardura areagotu egin zen. Artean, banenbilen ni, ideiak, zirriborroak lantzen, OARSO-rako artikulua prestatzen. Gainera aurtengo edizioan, gai berezi bat proposatzen da, Koldo Mitxelena Elissalten jaiotzaren mendeurrena dela eta, hura gogoratzea, onarpen berezi bat egitea. Eta nire aldetik gorazarre bat. Eta horretan nabil. Hori da nire intentzioa.

Esan dezadan Koldo Mitxelenaren inguruan eduki dudala halako harreman berezi bat, ezen nik aurrez aurre ez dut paradarik eduki berarekin egoteko. Baina bere irudiak, eta irudi horrek sortzen zidan miresmen estetikoa handia zen. Bazegoen halako mito zaletasun moduko bat. Nire ezagutza, Errenterian, bere bizitzako azken hamarkadakoa da. Bitartean, nerabe bat nintzen. Koldo Mitxelena Goiko kalean bizi zen, Iñigo lagunaren soto berberetan. Ni, Erdiko kalean. Eta Mitxelenak bazeukan ohitura bat. Goiko kaleko Casa Torre Torrekua eta Morrontxo eraikinen inguruko plazatxoan egoten zen. Nik han ikusten nuen “voyeur” moduko ariketa batean. Berak, ezpainen artean, tabakoa erretzeari uzteko garaian erabiltzen zen metodo bati jarraiki, plastikozko itxura zuten zigarroak, mentazkoak edo, ez dut zehazki orain ongi gogoratzen. Ene begietarako, irudi berezia zen. Gizon hark bazuen niretzat zerbait liluragarria, sekula ez dudana jakin izan zer

zen. Eta gogoratzen dut, Zumardian, nola, paseo moduan, ibiltzen zen joan-etorri batean. Ideia bat izaten nuen: “egongo nintzateke berarekin”. Eta ideia hau areagotu egiten zen, Josu, Iñigoren anaia gaztea, askotan joan zen Mitxelenarekin zinera, eta Donostiako Zinemaldira. San Inazio egunean, Zumardira, bandaren kontzertura entzutera, Koldo Mitxelenari asko gustatzen baitzizaion. Eta ene baitan, “Josuren aukera hori... nik edukiko banu”.

Gerora etorri zen haren lanak irakurtzeko garaia. Eta hor ulertu nuen nerabezaroko gizonari nion lilura ez zela kasualitatea. Gizon hark gordetzen zuen bere baitan zerbait. Eta noski, hori guztia agertzen zen bere idatzietan, bere gogoetetan. Eta hainbat testu irakurriak nituen. Baina 1988ko udaberrian, Mitxelena hil eta hilabete batzuetara, Antonio Izagirre zenak liburu bat opari egin zidan, Koldo Mitxelenarena, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Etor argitaletxean argitaratua. Hura bai izan zela niretzat Koldo Mitxelenarekin estuarazi egin zuen harreman intelektuala. Eta bereziki liburu horretan nire arretera piztu zuten artikulua bi izan ziren, “Euskal literaturaren etorkizuna”, eta “Asaba zaharren baratzea”. Bietan Mitxelena humanista bat aurkitu nuen. Gizaki kezkatu bat, giza izaeraren ezaugarriarekin, gizaki liluratu bat. Gogoratu baino ez dut egingo aipatutako lehen artikulua hasiera: “Gizona gizon denez gero, zer den galdezka ari da.” Eta Koldo Mitxelenaren lizentzia hartuta, baratzeko “Europa eta gu” ataleko geltokian geratuko naiz. Tren hori oso gustukoa baitut.

Ez dut ezer berririk esango, baina niretzat errenteriar bati deitzea “nazioartean ospea duen

euskaldun bat”, bada zerbait. Eta Koldo Mitxelenak nazioartekotasunari buruz duen ikuspegia arestian aipatutako artikuluan, atal horren espirituan, ongi islatzen da, eta hau ongi ikusteko hona hemen bere osotasunean:

Europako haizeak onak ala kaltegarriak ditugun: hona orain piztu eta berritu zaigun auzia. Berandu xamar gabiltza, gehienetan bezala, auzi hori 98koena berbera denez gero. Gogora dezadan, beraz, aurre askoan ibili zela behin Euskal herria gai horretan, Azkoitiako zalduntxoekin.

Ni behintzat ezin naiteke zalantzan hasi Europari buruz, nire sustrai guztiak Europan baititut. Europaren kultura —berak sortutako nahiz besterengandik hartutako gaiez oratua— gu guztiona da, nirea ez ezik, nahi badugu eta nahi ez badugu. Gure berezitasuna ez da europartasunaren hezur-mamiei usain eta kolore berexi antzekoa ematen diren larmintz mehea baizik.

Literatura, pintura, musika, eskubidezkoak uka eta arbuia ditzake Euskal herriko semeren batek. Bada ordea beste zerbait horiek baino indartsuagoa, nahiz baliotsuagoa ez izan, inon herrik ukatuko ez arbuatuko ez duena: Europan sortu zen jakintza. Dirua ez da zoriona, baina haren atzetik gabiltza gehienok, baita euskaldunok ere. Jakintza ez da salbabidea, baina eskaintzen dizkigun dohainak tentagarriegiak dira haien ihesi ibiltzeko. Dohain horiek dira jakitea eta, jakitea aski ez dela, indarra edo, berriz esaten hasi den bezala, boterea. Teknika soilaren jabe egin garen euskaldunok itxura gaiztoko fabrikaz bete ditugu behinolako soro eta basoak. Saia gaitezen, beraz, kultura baten alde onez lehenbailehen jabetzen, alde txar askoren jabe aspaldi egin ginenez gero.

Arrisku bat ikusten dut gure gazteriarentzat: Europan barrena asearen asez sortu diren kezkek eta arrangurek ez ote duten saihestuko hartu behar lukeen bidetik. Guk gosea berdintzeko daukagu; ez dugu oraingoz asearen beldurrik.

Ezin garbiagoa azaltzen da hemen Mitxelenaren humanismoa eta jakiten gogoaren aldarrikapena. Eta hemen nahiko nuke berak emandako itzalaren bidetik, Europara begiratzea.

Berak esan bezala, Europan sortu zen jakintza. Ez dut uste hemen norbaitek agertuko lukeenik Mitxelenaren gehiegizko eurozentrismo

bat. Ez. Nik gehituko nioke beste ñabardura bat. Europako lurralde bati zor diogu jakintza. Greziari. Greziako Homerori, Miletoko Talesi, Joniako zientzialariei, Sokrates, Platon, Aristoteles, Aristarko... eta hainbati. Greziar haiek erakutsi ziguten gizakiak berezkoa duen harridura, jakin-mina, ez dela alferrikakoa. Europak, ez ditu gaur bizitzen greziar haiek zuten asmoa, ez eta Mitxelenak bere idatzian utzi zigun aldarrikapena. Baina horrek ez du kentzen ardura bat daukagula. Ezin da itzali gizakiongan jakiteko gogoia, Mitxelenak aipatzen dituen hanka-sartzeak zuzenduz —teknikaren erabilera okerra—. Baratzean erakutsi behar dugu jarraitzen dugula ereiten jakinduria.

Eta bukatzeko, nire poema bat ekarri nahiko nuke. 2006ko *Hiri gorazarre* liburuko poema bat da:

*Beiraren mihiak ferekatzen du
hiriko eskaleen maitasuna.
Eskaleen eskuetan ez da
erortzen maitasunezko txanponik.
Maitasunak, maiteminak
maitaleen hutsuneak dira
neonezko kaleetan.
Kaleko zaratak estaltzen du
larunbat gaueko inkomunikazioa.
Koldo Mitxelenaren whisky basoak
ongarritzen du ene poema isila.
Isiltasun honekin agur esaten diot
basamortuko autobusari
ezin diet heldu
kateatuta dauden eskumuturrei.*



Jautarkol plaza.

Asier Perales

Mitxelena ahoskeraz

Miren Lourdes Oñederra

Luis Michelena/Koldo Mitxelenarekin¹ hasten da egun fonetika-fonologiako jakintzatzat har daitekeena, euskarara bere osotasunean harturik eta hitzen zentzurik osoenean: bera izan zen, alegia, gauzak zientzi mailara ekarri zituen hizkuntzalaritzaren gainerako alorretan bezala, ahoskerarenean. Lehenago ere izan ziren noski gai bereziei buruzko lanak, Mitxelenak ondo ezagutu eta kritikatzeko zituenak onerako zein txarrerako (erreferentzia onen artean, besteak beste, Navarro Tomas-en ikerlan akustikoak).

Ez da hau fonetika-fonologiako kontu teknikoetan irakurlea aspertzeko lekua. Ez da, beraz, gertakari zehatzen azterketarik azalduko. Ondoko lerroetan Mitxelenaren gauzak egiteko moduz eta horren bidez irakatsi ziguenez arituko gara. Izan ere, kontu batzuen analisisen xehetasunak aldatuz badoaz ere datuak eta metodoak ugaritu ahala, beti gelditzen zaigu zer ikasi franko Mitxelenaren lan-izpiritutik.

Esandakoa ondo ikusten da azentuaren alorrean esate baterako. Egia da orain Mitxelenaren garaietan baino askoz gehiago dakigula euskal hizkeren ahoskera zehatzei buruz Hualde eta bere segitzaileren lanei esker. Zalantzarik gabe, ordea, Mitxelenak egin zuen euskal azentuen lehen erretratu orokorra, bai historian zeharreko ibilbideari dagokionean bai aldaera geografiko nagusien

1. Luis Michelena sinatzen zituen erdaraz argitaratzen zituen lanak eta Koldo Mitxelena euskarazkoak. Bere Amarako etxeko bebarruko tinbrean ere izen biak jarri edo jarrarazi zituen.

Michelena y la pronunciación

Los estudios de fonética-fonología en euskera comienzan con Luis Michelena/Koldo Michelena¹. Si bien hubo trabajos anteriores a Michelena en estas áreas, es él el que las lleva a un nivel científico pleno. Y aunque posteriormente se haya avanzado mucho en algunos aspectos, siempre queda mucho por aprender del espíritu científico de Michelena.

Por ejemplo, esto se ve claramente en el área del estudio del acento. Es cierto que hoy en día, gracias al trabajo de Hualde y sus seguidores, sabemos mucho más sobre la pronunciación de las diferentes variedades del euskera. Pero cabe destacar que fue Michelena el primero en hacer un retrato general de los diferentes sistemas de acento del euskera, tanto desde el prisma de su evolución histórica como desde el establecimiento de las principales variedades geográficas. Aparte de artículos concretos, los cinco capítulos de su gigantesca obra *Fonética Histórica Vasca* son referencia inexcusable para el que quiera adentrarse en estos temas.

1. Él firmaba como Luis Michelena los trabajos que publicaba en castellano u otras lenguas y como Koldo Michelena los que publicaba en euskera. En este texto se pretende reflejar dicha opción.

finkatzean. Artikulu banakoak alde batera utziz hemen, *Fonética Histórica Vasca* lan erraldoiko bost kapituluak eredugarri dira alde horretatik eta orain ere gauzak zintzo egin nahi dituenarentzat nahitaezko abiapuntu gertatzen dira.

Esango nuke alderdi guztietatik merezi duela Mitxelenaren pentsamenduak irakurketa, azterketa, oroimena: honen laster bizi garen garai honetan, argitalpenen kopuruak kalitateak baino gehiago balio duenean, metodoak teoria izkutatzen duenean errazegi eta datuen analisisen nor-gehiagokan murgilduta gaudelarik, arrisku handian dago benetako ideien eta goi mailako pentsamendu erduzkoaren biziraupena.


Ahoskerari buruzko Mitxelenaren lanak beti erakusten digu ezagutzarako gogo bizi eta geldiezin bat, fonologiaren ikuspuntu teoriko bakoitzean aurrekoak eta ondorengoak ahaztu gabe murgiltzen zena. Ikuspuntu bakar batek ere ez zuen hesitzen bere jakin-mina, baina bai datuen trataera bideratzen. Etengabe aitortzen zuen zorrotasun teorikoaren garrantzia eta teoriaren garapena biziki interesatzen zitzaion (ahulezia hori aitortzen du, erdi txantxetan, oraindik linguistikazko teoriaren maila termodinamikazkoetatik urruti dagoela salatzen). Ez zen, noski, teoria bakarrek gizona izan.

Erabili zituenen artean konparatibismoak leku aparta du. Konparatibismoa baliatu zuen bere lanaren ardatz funtsezkoenetakoa den euskararen historia berreraikitzen. Oraintxe aipatutako zorrotasuna teoriaren erabileran ez zen inoiz zorrotzeria (*rigorismo* deitu zuen berak Meyer-Lübke-ren kontra) izan bere eskuetan eta umore onez, edo txarez, adierazi zuen horren kontrako bere jarrera behin baino gehiagotan. Hala dio berak ez duela asmatu "el viejo método comparativo": hain zuzen ere beste eremuetan izandako emaitza hobeez ingatik erabiltzen duela berak.

El trabajo sobre pronunciación de Michelena siempre demuestra un ansia irrefrenable por el conocimiento. Analizaba los datos de manera pormenorizada, pero no había ningún punto de vista teórico que delimitara su interés (aunque continuamente reconocía la importancia del rigor teórico y de la necesidad de su desarrollo, como cuando criticaba, medio en broma, que las teorías lingüísticas estaban muy lejos del nivel explicativo de teorías de otros campos como la termodinámica). No obstante, no era hombre de una sola teoría.

Entre las que utilizó, el comparatismo ocupa un lugar central. Así, utilizó el comparatismo para la reconstrucción de la historia del euskera, uno de los ejes centrales de su obra investigadora, si bien el rigor teórico al que hemos aludido nunca fue exacerbado (nunca cayó en lo que él llamó *rigorismo*, en contra de Meyer-Lubke). Como apuntaba, él no inventó "el viejo método comparativo", pero lo utilizó por los excelentes resultados que dio en otras áreas.

En cuanto al ámbito fonético-fonológico más estricto (esto es, dejando a un lado la reconstrucción), su punto de vista teórico principal fue el estructuralismo. Por un lado, éste era el marco



1987ko iraila. Euskalariaren Kongresua. André Martinet eta Koldo Mitxelena. Aurrean eta bizkarrez Jeanne Martinet, Andréren emaztea.

Ikerketa fonetiko-fonologikoa estu hartuta, hau da, berreraiketaz gainerakoan, esango nuke estrukturalismoa izan zela bere ikuspegi teoriko nagusia. Hala zegokion garaiagatik eta, gainera, ez dugu ahaztu behar Mitxelenak europar estrukturalismoaren ordezkari garrantzitsuenetako batekin, André Martinetekin, izandako harreman zuzena arlo akademiko zein pertsonalean. Mitxelenak ez zuen halere estrukturalismotik bakarrik edan. Estrukturalista zenbaitek baino hobeto zekien berak estrukturalismoak konparatibismotik ikasiaren berri eta bietatik etekin onenak ateratzen saiatu zen. Halaber, berrikuntzek ekarritako aurrerapenen balio teorikoen jakitun, euskarazko berreraiketan ezartzen ditu, adibidez, *fonema* kontzeptua.

Bere gogoa beti da teoria batek bestea nola osa dezakeen ikustea, ez bata bestearen gainetik jartzea. Hori behar bezala egiteak ahalbidetuko du, zioen, euskarari buruzko lanarekin jakintza linguistiko orokorrarentzat ekarpenik egon dadin. Bere gidaritzapean lan egin genuenok ederki dakigu adibidearekin batera nola nahi izaten zuen jakin beti zergatik, zertan oinarrituta eta zein uste teorikorekin genekarren mahaira delako adibidea, delako arazoa.


Izan ere, arazoak zituen maiteago erantzunak baino eta, horregatik ere uler dezakegu, zoritzarrez egungo molde eta estiloetatik urrun gelditzen den Mitxelenaren idazkera apala (asko dakienaren ezinbesteko apaltasun hori).

Bestalde, Mitxelena oso egungoa dugu hizkuntzen elkar-ukipenei emandako oinarritzko lekuagatik. Ez da bere proposamen teorikoak alor horretan ezartzen dituela, baizik eta ahoskeraren analisirako hizkuntzaren egoera errealetik abiatzen dela, erabilera baldintzetatik abstrakzio egin gabe. Teoria abstraktuenak (estrukturalismoaren ondoren etorri zen eta berak sendo arakatu zuen teoria sortzaile klasikoa barne) erabili bai, baina gainditu egiten dituela erakusten du, alde horretatik garbi utziz garaikideen bataz-bestekotik gora zebilela.

Gainera, hizkuntzaren egoera erreala nahitaez dagoenez lotuta hizkuntzaren benetako izaerarekin, behin eta berriz azalduko zaizkigu Mitxelenaren lanetan zenbait arazoren esplikazioaren muinean hiztunak, hiztun elebidunak edo hiztun eleaniztunak. Orain oso boladan dagoen

teórico de la época, pero por otro cabe recordar la relación directa (académica y personal) que tuvo con una de las mayores figuras del estructuralismo de la época; André Martinet. Michelena supo combinar como nadie la reconstrucción y los nuevos avances de las teorías estructuralistas, y por ejemplo, incorporó el concepto de *fonema* en la reconstrucción del euskera antiguo.

Su objetivo siempre fue el de ver cómo una teoría puede ser complementaria de la otra, no la de poner una por encima de la otra. A su entender es eso lo que permitiría que el estudio del euskera hiciera aportaciones a la lingüística general (y los que trabajamos bajo su supervisión sabemos bien cómo se interesaba por las implicaciones, predicciones teóricas y problemas que comportaba cualquier evidencia o dato que trajéramos a discusión con él). De hecho, le interesaban más los problemas que las respuestas, y es así como podemos entender el estilo humilde



eleaniztunen ahoskera oinarritzen duen sistema fonologikoaren eztabaidarako proposamenak egin zituen Mitxelenak dagoeneko hirurogeiko urteetan.

Molde estuen erakusgarri da halaber Mitxelena-ren erantzun garbia gaur oraindik eztabaida antzuak sortzen dituen dardarkarien auziaz. Bera ortodoxia estrukturalista haustera ausartzen da, hiztuna eta hiztunen oharmena jarriaz *artxifonema* kontzeptu ilun eta abstraktuaren aurretik. Esaten digu garbi dagoela *ura* eta *urra* hitzak bereizten dituen leun-gogor alde fonetiko hitz azkenean bigarrenaren alde berdintzen dela hiztunak *r* gogorra hautematen duelako, nahiz ez beti hala izan fisikoki eta teoriak irtenbide garbirik ematen ez badu ere.

Mitxelenak kontu handia jarri zuen fonetika-ren eta fonologiaren barne lotura estu hori aintzat hartzean, eta baita gauzen historiak lehena eta oraina uztartu beharra azpimarratzean ere. Azken batean, analisiaren eta hizkuntzalarien gehiegikerien aurka hizkuntzarekiko begirune beharrazaz dira 1978ko "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz" artikulutik atera ditudan hitzok:

Hots, lege sinkronikoen, oraingoek, hizkuntzaren une jakin batekoek, ez dute lege diakronikoen (bestela esan, historiaren) ispilu garbi izan behar ezin bestean. Baina baldin ispilu gisako gertatzen badira, ez da batere kaltegarri jakintzarentzat. Labur beharrez, honela laburtuko nuke honerainokoa: hizkuntzak, lehengoak eta oraingoak, batu duena, ez beza hizkuntzalariak bereiz. Bereizkuntzaren premiarik ez dagoenean, noski.

Idazki labur hau bukatzeko esan nahi nuke hizkuntzalaritzaren alor tekniko eta hotzena dirudien fonetika-fonologian ere, Koldo Mitxelena gogor aritu zela egiaren bila, bestelako bere lanetan eta bizitzaren gainerako borroketan saiatu zen bezala, erabateko nekeak akitu zuen arte.

de su escritura (la humildad del que sabe mucho, tan poco frecuente hoy en día).

Por otro lado, cabe destacar que Michelena es también muy actual por la atención que prestó al contacto de lenguas. No es que situara sus aportaciones teóricas en ese ámbito, sino que partía siempre de la situación real de la lengua, sin hacer abstracción de sus condiciones de uso. Estudió y utilizó las teorías más abstractas (incluida la teoría generativista), pero también estuvo por encima de ellas, demostrando que estaba más adelantado que la media de sus coetáneos. Por ejemplo, esto se ve en su análisis del (todavía discutido) problema de las vibrantes. Rompiendo con la ortodoxia estructuralista, puso la percepción del hablante en el centro de la explicación, por encima de conceptos abstractos y oscuros como el *archifonema*. Argumentó que la distinción fonética entre vibrante simple y múltiple en *ura* y *urra* desaparece en favor de la múltiple en final de palabra porque el oyente percibe la *r* múltiple, aunque ésta no sea siempre físicamente así (y la teoría no dé una solución clara).

Para terminar este breve escrito quisiera añadir que incluso en una de las áreas aparentemente más frías y técnicas de la lingüística como es la fonética-fonología Koldo Michelena siempre trabajó en búsqueda de la verdad, como lo hizo en toda su vida y obra.



Koldo Mitxelena euskaltzain osoa Erreterian, 1961eko urtarrilaren 22an

Elixabete Perez Gaztelu

Gehigarri honetan bertan Koldo Mitxelena-ren itzala —handia, zabala, gero!— zuzen eta egoki neurtu dute. Ongi baino hobeto adierazia dago, hortaz, Mitxelenak era batera eta bestera gizarteari zer eta zenbat eman dion; bestela esan, Mitxelenaren iturritik zer eta nola edan dezakegun.

Mitxelena iturri emankorra. Eta Mitxelena hartzailea; era bateko eta besteko hartzailea. Izan ere, garai luze batean (Salamanca biziaren aurretik gutxienez!) hamaika lazkeria gorriren eramaile edo hartzailea izan zen —zoritxarrez—, baina baita —zorionez— gizarteak eskaini nahi izan zion esker onaren aitopene ere. Gainera, askok ez bezala, alderdi gozoa bizi izateko egokiera ere izan zuen Mitxelenak.

Artean bizi zela, azken urteetan, erakunde sonatuek sariak, izendapenak eman zizkieten (Bordeleko Unibertsitateak "Honoris causa" doktore izendatu zuen (1982); Ossian saria (Hamburgo) eman zioten (1983); Bartzelonako Unibertsitateak ere "Honoris causa" doktore izendatu zuen (1984); Menéndez Pidal saria eta Alfontso jakitunaren gurutzia eman zizkieten (1984); EHUK irakasle emeritu izendatu zuen (1985); Eusko Jaurlaritzak omendu zuen (1986)... Tira, "Burgosko espetxeko unibertsitateko" kideek ere "Honoris causa" doktore izendatu zuten, 1983an.

Horiek guztiak baino lehen, ordea, 1961ean, Erreterian mendi eta kultura elkarteek, Udalaren ondoan (Udalarekin batean?), Koldo Mitxelena herriko semeari omenaldi berezia egin nahi izan zioten, euskaltzain oso izendatu zutela eta.

Ibon Sarasolak gehigarri honetan dioen moduan, Koldo Mitxelenaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremana 1950eko hamarraldian hasi zen (bigarren kartzelalditik 1948ko apirilaren 18an atera zen kalera). Euskaltzain urgazlea (laguntzailea) zen Mitxelenari Azkueren hiztegia egokitzeko eskatu zion erakundeak. Hori horrela izanik ere, ez zuen Akademiak euskaltzain oso izendatu, ekitaldi eta guzti, urte batzuk igaro arte, 1961eko urtarrilaren 22a arte.

Donostiako *Diario vasco*¹ eta *La voz de España*², eta Baionako *Herria* egunkariak³ xehetasun handiz jaso zituzten igande horretako ospakizunak. Urte bereko *Euskera* Euskaltzaindiaren aldizkariak ere jaso zuen bai ospakizunen berria, bai Mitxelenaren eta Villasanteren hitzaldiena.

1. Urtarrilaren 24ko alean (asteartean), azalean argazkia eta "Homenaje a Luis Michelena" berri laburra eta 4. orrialdean, J. M. Salaverria Erreterian berri-emaileak sinatua, aurreko igandeko ospakizunen kronika: "El domingo en Rentería. Se tributó un homenaje a Don Luis Michelena, académico de la lengua vasca. Los actos fueron presididos por el gobernador civil".
2. Urtarrilaren 24ko azalera eraman zuen omenaldiaren berria, argazki eta guzti: "Michelena ingresa en la Academia de la Lengua vasca". 6. orrialdean Javier de Aramburuk sinatutako kronika "Don Luis Michelena Elissalt en la Academia de la Lengua Vasca. Rentería le rindió un caluroso homenaje", eta 7. ean Basarri bertsolariak "Mi atalaya montañera" ohiko saila eskaini zion.
3. *HERRIA journal basque-français hebdomadaire* bi egunetan eskaini zuen ospakizunaren berria: urtarrilaren 26ko alean, azalean eta barrengo beste orrialde batean "Luis Michelena-ren ohoretan. Erreterian besta ederrak", eta otsailaren 2an, hau ere azalean eta barrengo orrialde batean: "Nor da Luis Michelena?", Erreterian ospakizunetan izan zen Piarres Lafitte (euskaltzain eta) egunkariaren zuzendariak sinatua.

Errenteriako Udalak eta Euskaltzaindiak antolatu zuten omenaldia, baina egunkarietako berriemaileek diotenez, herriak ere (“homenaje popular”) gogoz parte hartu zuen omenaldian. Agintaririk ere ez zen falta izan: Jose M^a del Moral, gobernadore zibila, bere idazkari Tomas Alvarezek lagunduta, Ramón Flores Salazar, diputatua, Gipuzkoako Diputazioaren izenean, Luis Etxeberria, Errenteriako alkatea, Ignazio Larrañaga kaputxinoa, Pingliang-go (Txina) gotzaina eta beste.

Goizeko 10:00etan meza nagusia eman zuen on Roberto Agirre bikarioak, Aramburu kronikagilearen hitzetan, “quien ensalzó las virtudes y los méritos del hombre que sabe sacrificarlo todo en la vida para seguir su verdadera vocación” (LVE, 6. or.), eta *Schola cantorum*-ek ere kantuz lagundu zuen elizako ospakizunean.

Ondoren, udaletxeko pleno aretoan Euskaltzaindiak ezohiko batzarra egin zuen. Ignacio Maria Etxaide euskaltzainburuak, Nazario Oleaga Euskaltzaindiko idazkariak eta Antonio Arrue euskaltzainek ekitaldian parte hartu zuten. Koldo Mitxelenak “Euskal hiztegiak XVII eta XVIIIgarren mendeetan” sarrera hitzaldia egin zuen eta Luis Villasante euskaltzainak erantzun zion.

Errenteriako Udalak idazmakina eta oroigarri bat oparitu zizkion Koldo Mitxelenari eta Ereintza elkarteak (“entusiasta colaboradora de estos actos”, DV, 4. or.) luma bat.

Hitzaldien ondoren Koldo Mitxelena udaletxeko balkoira atera zen herritarren txaloak entzutera eta Ereintza dantza taldearen saioa ikustera. Manso jaunak zuzenduta, Errenteriako musika bandak kontzertua eskaini zuen.

14:00etan Panier Fleurin bazkaria. 200 bat bazkaltiar elkartu ziren, tartean euskaltzainak: Irigoyen, Lekuona zaharra, Irigarai, San Martin, Lafitte, Loidi... Bazkal ondoan, jasotako zorion-gutun eta



1961eko urtarrilaren 22an, Errenteriako Udaletxean, Koldo Mitxelena Euskaltzaindian sartzea. Sara Etxeberriak utzitako argazkia. Ezkerretik eskuinera: 2. Koldo Mitxelena; 4. Luis Echeverría Iceta, Errenteriako alkatea; 5. José M^a del Moral, gobernadore zibila.

telegramak irakurri zituzten (Jorge Oteizarena⁴, Federiko Krutwigena, Orixerena...) eta Basarriren hitzak eta bertsoak entzun zituzten. Bukatzeko, Mitxelenak hitz batzuk egin zituen, guztiz hunkituta:

Finalmente, Luis Michelena agradeció las muestras de solidaridad recibidas, agradeciendo así mismo la ayuda que en su trabajo ha recibido, no siendo, sin duda, la [menor] la de su esposa, Matilde Ilarduya allí presente. El tono jocosos en que comenzaron las palabras de Michelena se volvieron de pronto [for]zosas y difíciles por ganarle la emoción. (LVE: 6. or.)

Bazkarian esana jaso zuen Basarrik handik bi egunetara (urtarrilaren 24an) *La Voz de España*ko “Mi atalaya montañera” zutabean, 7. orrialdean. Interesgarria iruditzen zaigu hona ekartzea, besteak beste, jasotzen dituelako geroxeago aipatuko dugun hilaren 21eko Ereintzaren antzerki saioaren berria, ospakizunaren gorabeherak eta, guztiaren gaitetik, bertsolariak agerian jartzen duelako, alde batetik, intelektualen lanaren zailtasuna edo ezina,

4 “Grande y querido Mitxelena: Como estaré fuera en tu homenaje, te dejo un abrazo tan fuerte que puede estar viniendo desde que comenzaste a construirte hasta el próximo, que ojalá sea el de nuestra conjunta reconstrucción en nuestro querido pueblo. Agur, Luis, que tu ejemplo nos sirva a todos. Zorionak”. (Jorge de Oteiza. Irún). *Euskera* (1961:6).

eta gizarteak horretan zuen (duen) erantzukizuna, eta, bestetik, Mitxelena ere adinkide eta lagun zuen Ayaldek argitaratuaren ildo beretik, Basarrik ere Mitxelena hartzen duelako Filologiaren alorreko "gure" lehen zientzialaritzat; bi alderdien, zientziaren eta euskaldun izatearen, uztardura oparotzat. Esan dezagun gure aldetik Koldo Mitxelena lehen zientifikoa, bai, baina, bistan da, "profesional" erabatekoa izateko behintzat, zerbait falta zuela: ogibidea ziurtatuko zioten baliabide ekonomikoak.

Don Luis Michelena, el eminente filólogo renteriano, vió que no se halla solo; que todo el país se da perfecta cuenta de su inmensa labor. La presencia de tanto forastero en Rentería el domingo, y la adhesión total del vecindario, constituyeron un poderoso incentivo para el infatigable trabajador y sacrificado lingüista. Era el país entero, con representantes de todas las provincias vascas el que le alentaba para proseguir en su ardua tarea y don Luis Michelena, una vez más, dio su sí rotundo, prometiendo entregarse en cuerpo y alma a su vocación predilecta.

* * *

¡Cuán admirablemente lo dijo el párroco de Rentería, durante la solemne misa mayor! Estos hombres que se dan por entero a su vocación, renunciando a tantas proposiciones económicamente mucho más ventajosas, merecen el reconocimiento de todos y el calor de todos. Son tan raros estos ejemplares en los días que corremos, en los que por beneficios materiales se pisotea todo lo más sagrado...

Si Michelena llega a ser uno de estos, el país hubiera perdido una figura cumbre: el primer científico, el hombre mejor preparado que jamás hemos tenido dentro de la filología.

* * *

Mi gran amigo Ayalde publica un sustancioso artículo en el semanario "El Bidasoa", de Irún. Siento la tentación de reproducir un pequeño fragmento: "Virtual director del Seminario de filología "Julio de Urquijo", Luis ha de trabajar forzosamente como profesor en diversos centros pedagógicos para subsistir". Esto es lo triste y deprimente, queridos lectores. Esto es lo que Guipúzcoa no debiera consentir. La provincia no puede perder por motivos de orden económico a un hijo que la prestigia y que

podría prestigiarle mucho más si pudiera dedicarse exclusivamente a su vocación científica.

Si a Michelena no le damos esta oportunidad de dedicarse íntegramente a esta especialidad, será un caso bochornoso para todos los guipuzcoanos. Las futuras generaciones se encargarán de reprocharnos esa desidia.

* * *

Los actos del domingo resultaron a cual más simpáticos y cordiales. Fueron realizados por la presencia de la primera autoridad de la provincia, don José María del Moral, que con tanta comprensión y cariño acoge las manifestaciones culturales de nuestro pueblo.

El acto académico, en la Casa Consistorial, se celebró dentro de la mayor animación, con la amplia sala repleta de público.

Michelena explicó su magnífica lección "Lexicografía vasca en los siglos XVII y XVIII". La contestación estuvo a cargo del padre Villasante. Los actos académicos se han hecho para las personas selectas, para la gente preparada, y los que llenaban el salón de actos renteriano eran distinguidísimos vascófilos de todas las procedencias. El señor Arrúe clausuró la reunión con unas certeras y atinadas palabras.

* * *

En Rentería todo estuvo rayando a gran altura. La representación teatral de la víspera, la solemne misa mayor, la actuación de los danzaris de Ereintza, el señalado acto académico, el concierto de la banda de música (¡qué bien suena, por cierto, la banda de Rentería!), el banquete popular, la intervención de los chistularis, etc.

Un detalle que vale por todos: unos 200 comensales tomaron asiento en el banquete, y sabemos que el propietario del Panier Fleuri tuvo que rechazar más de otras 200 peticiones por falta de espacio en los locales. Y sabemos de algunos amigos nuestros de Lezo e incluso de la misma Rentería que no pudieron satisfacer su deseo de participar en el ágape.

* * *

Luis Michelena guardará un recuerdo imprecadero de la jornada del domingo. Así ha sabido



Errenteria 1961. Ereintza Antzerki Taldea. José Elizondoren "Dollorra" obraren antzezpena.

Zutik: Atanasio Arruabarrena, Javier Olascoaga, Anamari Ugalde, Olegario Izaguirre, Sabino Irastorza, Andoni Korta, Jesús María Oliveri, Mariano Olaskoaga, Koldo Mitxelena, Javier Mirasolain, Arancha Martínez, Begoña Zugarramurdi, Bittor Idiazabal, Javier Echave, Román Elizalde.

Makurtuta: Itziar Mitxelena, Rafael Mitxelena eta Juanito Etxeberria.

Iturria: Ibarzabal, E. (1977). *Koldo Mitxelena*. Erein.

responder el pueblo con el primer profesional de la Filología vasca. Hemos tenido y tenemos —como acertadamente apunta Ayalde— etnólogos profesionales de enorme talla como Aranzadi, Barandiarán y Caro Baroja, pero en Filología solo ha habido aficionados. Las primeras figuras en el estudio del vascuence han sido siempre sabios extranjeros: alemanes, franceses, ingleses, etc. hasta la aparición de nuestro Michelena. Este lleva gran ventaja sobre los demás por su formación universitaria, por su formación y talento, y porque en él coinciden el científico y el hombre surgido del pueblo, el nativo.

No puedo menos que reiterarle mi cordial felicitación, que la hago extensiva al Ayuntamiento de Rentería, por cuanto ha hecho en esta memorable ocasión para honra y gloria de su insigne hijo. BASARRI

Koldo Mitxelena euskaltzaina Errenterian omentzea, hala ere, urtarrilaren 22a baino lehen hasi eta 22aren ondoren bukatu zen; Errenteriako mendi eta kultura elkarten ekimenez.

Ereintza antzerki taldeak bezperan, hilaren 21ean, *Dollorra* lana antzeztu zuen Mitxelenaren omenez, *Basarrik* eta *Euskera* aldizkariak jaso bezala.

Eta Urdaburu mendizale elkarteak ere bere aletxoak jarri zuen. 1961eko urtarrilaren 31ko bile-ran zuzendaritzak erabaki zuen Mitxelenari oroigarri bat ematea eta ohorezko bazkide izendatzea.

Gobernadore zibilari baimena eskatu, hark eman, eta 1961eko otsailaren 19an, igandea, bazkari dotorea egin zuten Urdaburuko kideek Mitxelena omentzeko eta bertan oroigarria emateko.

Hauxe egitaraua: 9:30ean Agustinetan meza entzun eta ondoren, oinez Altzibarra. Han salda hartu, eta Gurutze jatetxera bazkaltzera:

Entremeses de la casa, consomé, merluza con mayonesa, solomillo en su jugo con puré Duquesse, tarta y helado, café. Precio del cubierto incluido caldo en Alcibar 135 pts.

Ekarri dugunaren bitartez erakutsi uste dugu Koldo Mitxelenak erakundeena ez ezik, beste maila batzuetako gizon-emakumeen babesa eta aitortpena ere izan zuela (eta, beharrik!, ikusteko eta bizitzeko zori ona ere izan zuela) eta egun ere baduela. Hortxe 1961eko *Schola cantorum*, Musika banda, Ereintza dantza taldea, Ereintza antzerki taldea, Urdaburu. Hortxe orain kanpoan utzi ditugun hil eta 10 urtera, 1977an, Mitxelenaz egin eta argitaratu ziren liburu, gehigarri, bideo eta gainerakoak...

Eta hementxe Oarso, berriz ere —orain dela 27 urte, 1988an, bezala—, Goiko kaleko jakintsua jaio zela ehun urte betetzen direla eta, egiten ari diren eta izango diren beste omenaldi batzuen ondoan, Koldo Mitxelena Elissalti diogun zorra aitortzen eta esker ona erakusten.

Señalada en el local social, de la Junta General Ordinaria, celebrada el día 21 de abril de 1961 a las 20,45 con asistencia de 44 socios.

Esta asamblea fue una continuación a la celebrada anteriormente, pues en la misma no se llegó a completar el orden del día.

ASUNTOS AGENDADOS

Se da continuación la misma Junta Directiva del Grupo como sigue:

PRESIDENTE: José FRANCISCO PEREIRA
 VICEPRESIDENTE: Fermín ARRIZTU SALARRASA
 SECRETARIO: José M. LARRAÑAGA
 CONTADOR: Gregorio FARIÑA
 ADMINISTRADOR: Domingo ERGIVIZ
 VOCAL: Eusebio TENDIZABAL GARIZOLA
 VOCAL: PEDRO M. IZARRUREN
 VOCAL: Manuel ORTIGALLA
 VOCAL: Juan JUANES ERUTE SARRAENDIN

Se da cuenta la liquidación de los gastos al acuerdo de que el local social, situado en la calle de Oarso, número 3, Juan Sebastian, para el día 19 del actual, se celebrará un ágape en honor de Don Luis Michelena, a modo de homenaje, con una inscripción alfébar, llevando a efecto la misma en la comida que tendrá lugar el próximo día 19 del actual, fomentando así el espíritu que preside a los miembros honorarios del Grupo.

Para la celebración de este acto se permitirá mostrar la bandera independiente al Gobierno Civil.

sigue

Neg.º O.P.
 Ref.º Varios
 X.º 457

Visto su escrito de fecha 10 de los corrientes, recibido en este Gobierno Civil en el día de hoy, en el que como Presidente del Grupo de Montaña Urdaburu, solicita autorización para celebrar el próximo domingo día 19 del actual, en el Restaurante Gurutze de Oyarzun, una comida de hermandad, con motivo del nombramiento de socio honorario del citado Grupo de Montaña, a favor de DON LUIS MICHELENA ELISSALT, recientemente designado miembro de la Academia de la Lengua Vasca:

He acordado, en uso de las atribuciones que me están conferidas, acceder a lo solicitado.


Lo que me complace en participar a V. para su conocimiento, como contestación al escrito de referencia y demás efectos.

Dios guarde a V. muchos años

San Sebastian, 15 de Febrero de 1961

EL GOBERNADOR CIVIL.

[Signature]



r. Presidente del Grupo de Montaña Urdaburu

RENTERIA

PROGRAMA

9 1/2 h Se saldrá del local social para asistir a la Santa Misa a las 9 1/2 h en el Santuario de las M.N. Agustinas.

A continuación se saldrá con dirección a Gurutze pasando por Aloibar donde será servido un caldo.

14 h En el Restaurante Gurutze de Oyarzun se hará el trega del nombramiento de Socio de Honor a Dn. Luis Michelena Elissalt, y a continuación tendrá lugar un ágape de hermandad.

NOTA: A todos aquellos Sres. Socios a quienes interese la asistencia al ágape se ruega tengan la amabilidad de inscribirse en las adjuntas listas de inscripción antes de las 21 horas del viernes día 17 momento en que quedará definitivamente cerrada la inscripción.

MENU.-

Entremeses de la casa.
 Consomé
 Merluza con mayonesa.
 Solomillo en su jugo con puré Duquesse.
 Tarta y helado.
 Café.

Precio del cubierto incluido caldo en Aloibar

Ptas. 135,-

Urdaburu Mendizale Elkartea.

Koldo Mitxelena eta Joan Coromines: Hizkuntzalaritzak sortutako adiskidetasuna

Josep del Rio

Itziar Adurizi, bi mundu hauek batzeko lan egiten baitu.

Erreteriatikartzelonara 576 kilometro daude. Distantzia handia ematen du, baina ez da hainbestekoa, eta ez da oztopo izango joan den mendeko bi hizkuntzalari garrantzitsu hauen erlazioaren berri emateko. Joan Coromines 1905ean jaio zen. Koldo Mitxelena 1915ean. Bata familia katalantzale baten barnean hazita, bestea abertzaleen baitan. Biek gerra zibilaren ondorioak sentitu zituzten larruan: Corominesek exilioaren bidea hartu zuen eta katedra Chicagoko Unibertsitatean lortu zuen. Mitxelena, berriz, boluntario joan zen gerrara, preso hartu zuten eta heriotza-zigorra kondenatu zuten. Pena kommutatu zioten 30 urteko kartzelaren truke. Ez zen faxistek kartzelara eramango zuten azken aldia izango, izan ere, Erregimenaren kontrako elkartzete batean egoteagatik bueltatuko da espetxera. Ez dugu deusik gehiago esango bi hizkuntzalarion biografiaz, artikulua baitaude kontsultatzeko moduan.

Gerrako belaunaldiaren bizitza gogorra izan zen benetan, baina, zailtasunak zailtasun, Coromines eta Mitxelena derrigorrezko erreferentziako hizkuntzalari bihurtu ziren. Adu kataluniarraren kasuan, penintsulako toponimiaren arloan maisu agertzen zaigu, batzuetan zorrotz-zorrotza, beste batzuetan ez hainbeste —*aliquando bonus dormitat Homerus*—. Zalantzarik gabe, etimologia bihurtu zen Corominesentzat interes handieneko gaia eta akademiko kataluniarrak *bascoide* izendatzen zuen substratuaren erroak topatzeko ahalegin berezia egin zuen¹.

1. *Bascoide*tzat hartutako interpretazio asko zalantzan jarri izan dira.

Koldo Mitxelena y Joan Coromines: la amistad surgida en la Lingüística

Joan Coromines (1905) y Koldo Mitxelena (1915) pertenecen a la generación que padeció directamente las consecuencias de la guerra civil; el primero sufrió el exilio, y el segundo la cárcel. Pero, a pesar de las dificultades, los dos llegaron a ser lingüistas de prestigio indiscutible. El catalán se especializó en la toponimia de la península. Destacó sobre todo en el campo de la etimología y, en particular, en la búsqueda de las raíces del substrato *bascoide*. El vasco, por su parte, es considerado el padre de la Filología vasca, fundamentalmente por su obra *Fonética histórica vasca* (FHV). Ambos son referencias imprescindibles de la Lingüística diacrónica. Sus caminos se encontraron en un congreso sobre ciencias onomásticas en Salamanca, en 1954.

Se respetaban y admiraban mutuamente y coincidían en el objeto de estudio. Son frecuentes las citas de uno en las obras del otro: Mitxelena menciona en sus obras a Coromines y recomienda su lectura. Hay autores que consideran que el *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (DCELC) de Coromines fue

Mitxelenaren kasuan, berriz, Euskal Filologiaren aitatzat hartu izan da. Ikerketa hauek berroinarritu zituen *Fonética histórica vasca* obrarekin. Euskaltzaindiak euskara batzeko irizpideak finkatzeko eskatu zion, adibidez, akordioa lortzea ezinezkoa zela ematen zuenean. Datu gutxi horiek errenteriarraren figuraren garrantzia ikustarazten digute.

Bi hizkuntzalarion bideak elkartu ziren, patuak jota baleude bezala. Dakigunez, Zientzia Onomastikoen 5. Kongresuan elkar ezagutu zuten, Salamancan. Hori 1954. urtean gertatu zen. Corominesek, frantsesez, bere "Onomasticon Cataloniae" ponentzia irakurriko du kongresuan eta hantxe haien arteko adiskidetasuna hasiko da.


Elkarren artean miresmena eta esker ona zegoen, dudarik gabe. Ikasgaiek ere batzen zituzten. Honen harira, Solàk (1999:197) honako hau idatzi zuen Corominesen euskarari buruzko interesa agerian uzten duena:

Coromines va integrar de ple el basc en l'estudi de les dues llengües hispàniques (per exemple, va determinar de manera precisa el paper que havia jugat aquella llengua en els Pirineus)...

Haien izenak oso ezagunak dira arlo zientifikoan erakutsitako asmatze eta maisutasunarengatik. Areago, haien lanen erreferentzia bibliografikoak nahitaezkoak dira hizkuntza diakronian lan egiten duenarentzat. Ispiluan bezala, bataren lanaren admirazioa eta interesa bestearen ikerketetan islatzen dira. Honela, adibidez, Mitxelenak berri laburra idazten du *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana* (DCELC) argitalpenaren kariatz liluratu dagoela esanez. Hiztegi honek, 1954. urtean argitaratuak, Mitxelenaren baitan biziki eragingo du. Horren adibide moduan, errenteriarraren oharren batzuk ekarri ditugu hona:

una fuente de inspiración para el proyecto del *Diccionario General Vasco* de Mitxelena. Coromines, por su parte, también cita al vasco. Por ejemplo, publica una crítica entusiasta sobre FHV de Mitxelena (lo considera el "Verner vasco").

Reconocido todo ello, el objeto de este artículo no es elaborar un inventario de las referencias recíprocas, sino mostrar la amistad, el respeto y la admiración que sentían mutuamente. Me valdré de dos ejemplos como última muestra de ello: de las palabras de José Antonio Pascual, alumno-discípulo de ambos, y de un dato.



Erronkari bailara, 1971. Ezkerretik eskuinera: Isabel Múgica, Ciriaco Bueno (bertako gidaria), Koldo Mitxelena, Joan Coromines eta Pedro Miguel Etxenike.

Los que, para usar sus mismas palabras, andamos más o menos extraviados por el laberinto euskérico, estamos en deuda con el señor Corominas por prestarnos tantas veces, en nuestras muchas vacilaciones, un sólido apoyo exterior: incluso llega a ofrecernos más de una vez la explicación directa de voces vascas. (Mitzelena, 1955:13).

Izan ere, DCELCen argitalpenak Mitxelena eta beste euskalariak sakonki hunkitu zituen. Mitxelena hainbestearino harritu zuen, non inspirazio bihurtu zitzaion *Orotariko Euskal Hiztegia* proiektuari ekin zionean.

Henrike Knörrek ere (1989) argitalpen honek ekarri zituen eraginez hitz egiten du. Corominesen hiztegia eredu bihurtu zen *Diccionario etimológico vasco* moldatzeko orduan. Eta horregatik ere, Knörren iritziz, Mitxelenak bere asmoak aldatu zituen²: Azkueren hiztegiaren errebisatzeko ideia utzi zuen bere hiztegia idazteko³.

Mitxelenak Coromines hizkuntzalaritzan jakitun ikusten du eta bere obrak gomendatzen ditu. Honela, *Anotaciones para un curso de Lingüística general* liburuan, Mitxelenak bere teorizazioaren maisu handien obren artean aipatzen ditu Humboldt, Coşeriu, Saussure, eta ez da Corominesez ahazten, *immanentzia* eta *sistematizitate* kontzeptuak azaltzean, adibidez.

Norabide berean, maiz gomendatzen zuen Mitxelenak Corominesen obren kontsulta, gutun pertsonaletan, edo mende hartako hizkuntzalarien artean aipatzen zuen, esaten genuen bezala:

Pero, ¿cómo es posible que se hable de rom. **agranio* sin citar, por ej., a Corominas o a otros autores de diccionario etimológicos y obras de lin. hist. romance? Nos quedamos con Meyer-Lübke y ELH 1.

Para léxico cast. (y peninsular en general) tiene que citar siempre el dicc. (grande) de Corominas, del cual va a salir ahora una 2. ed.

2. Ikus hemen Ibon Sarasolaren "Koldo Mitxelena hiztegi-gilea". [Erredakzio taldea].

3. Corominesek *Diccionario etimológico vasco*ren idazteko prozesuan parte hartu zuela gogoratzea komeni da.

Pascual responde de esta manera a Fresán:

Michelena, el refinamiento absoluto; incapaz de publicar un trabajo, por modesto que fuera, sin tratar de convertirlo en una obra maestra. Corominas, convencido de que «lo mejor es enemigo de lo bueno», podía sacar adelante algunas lucubraciones, en las que no le importaba que quedaran unos cabos sueltos. (Fresán 2009:42).

El dato es el siguiente: La Universidad del País Vasco quiso nombrar a Coromines doctor *honoris causa* en el año del fallecimiento de Koldo Mitxelena. Coromines no lo quiso aceptar como señal de duelo por la muerte del lingüista y amigo vasco.

Quisiera terminar mi aportación a este centenario reconociendo la gran labor de ambos lingüistas. Nos han dejado unas obras de calado tan profundo que nos hacen sentirnos enanos sobre espaldas de gigantes.

Adibideek elkarrekiko miresmena salatzen dute. Henrike Knörrek (1989:21), *Fonética Histórica Vascaren* argiltapenari buruz hitz egiten duenean Corominesek *Breves notas vascorrománicas a propósito de la Fonética de Michelena* artikuluan erabilitako deitzaileak biltzen ditu: "valor extraordinario", "Verner vasco", etab. Knörren artikuluan bertan Mitxelena eta Coromines artzain batekin mintzatzen ari diren argazki batzuk ere badaude, norbaitek bere jakin-mina asebetu nahi baldin badu. Beste obra batean, *Tópica Hespérica* (Coromines 1972:293), Bartzelonako hizkuntzalariak bere esker ona eskaintzen dio Mitxelenari:

Me limitaré a poner de relieve [...] lo mucho que debo a las obras del sabio guipuzcoano y en particular a su *Fonética*, [...].

Eta, bere aldetik, Mitxelenak Corominesen abileziak goraiatzen ditu:

Es menos sabido que, a juzgar por *ok(h)ela* 'trozo' < buccella, esta pronunciación sobrevivió

como ya indicó Corominas, a la apertura de i, u breve en e, o. (Mitzelena 1972:11).

En los números 12-3 de FLV [...] hay unas muy valiosas contribuciones de J. Coromines, cuyo índice puede verse en FLV 5 (1973), 14-19, en que, entre otras cosas, trata del problema de la acentuación de los topónimos vascos. (Mitzelena 1973:250).

Beste batean, berriz, Mitxelenak etimologo kataluniarraren adierazpenak zuzentzen dizkio, zientzia honelakoa baita:

No creemos que tenga relación alguna con vasc. *burintxa, urxintx*, etc., 'ardilla', como sugiere Corominas I, 255 b (s.v. *ardilla*, n. 5), siguiendo a Schuchardt. (Agud et Mitxelena 1968:81).

Jakina, Corominesen hipotesien egokitasuna askotan zalantzarria da, baina aurkezpen metodologikoak egiautasun ematen die, Antoni Grieraren euskal fantasia etimologikoekin konparatuta.

Dena den, ez dugu gure bi hizkuntzalarien erreferentzia guztien inbentarioa egingo. Eman-dako adibideak nahikoak izango zaizkigu elkarren arteko harreman ona ulertzeko. Eskainitakoekin, adiskidetasun, errespetu eta mirespen sentimenduak zeudela ikus dezakegu. Hori esanda, agian interesgarria izango litzakete bi hizkuntzalari hauen gainean azken datu pareak gehitzea.

Lehendabizikoa zita bat da. Kasu honetan, antzinako ikasle baten hitzak dira, José Antonio Pascualenak. Mitxelenagandik ikasi zuen hizkuntzalaritza, gero Corominesi DCELC antolatzen lagundu zion eta, hortaz, bere dizipulu bihurtu zen. J. Fresánek elkarrizketa egin zion eta Pascualek bi hizkuntzalariak horrela deskribatu zituen:

Michelena, el refinamiento absoluto; incapaz de publicar un trabajo, por modesto que fuera, sin tratar de convertirlo en una obra maestra. Corominas, convencido de que «lo mejor es enemigo de lo bueno», podía sacar adelante algunas lucubraciones, en las que no le importaba que quedaran unos cabos sueltos. (Fresán 2009:42).

Bigarren datua estimu eta humanitate sako-naren keinua da. 1987. urtean Koldo Mitxelena hil egin zen eta, urte berean, Euskal Herriko Unibertsitateak Corominesi jakinarazten dio Letra Fakultateko Gobernu-Batzordeak Errektoretzari proposamen bat aurkeztu diola. *Honoris causa* doktore izendatu nahi dute "en atención a sus relevantes estudios sobre lingüística indoeuropea, románica y en especial hispánica, y muy particularmente por sus valiosas aportaciones a la lingüística, dialectología y toponimia vascas y pirenaicas". Corominesek bere lagunaren heriotzaren kariatz uko egingo dio.

Azken buruan, adibide hauek guztiek hizkuntzalaritzaren bi maisuak zirriborrotzen lagundu digute. Kalkulatu ezinezko jakintza utzi digute, luzaroan iraungo duten gaurkotasun handiko obrak dira, bibliografia berezitan ezin direnak falta. Finean, ez gara erraldoien sorbaldetan igoak diren ipotxak baino.

AGUD M., et K. MITXELENA (1968): "Nombres de la "comadreja" en el País Vasco". ASJU 2, 1968, 73-85.

COROMINES, J. (1972): *Tópica Hespérica. Estudio sobre los antiguos dialectos, el substrato y la toponimia romances*. Madrid: Editorial Gredos.

FRESÁN, J. (2009): "El paraíso perdido de José Antonio Pascual". *Clarín: Revista de nueva literatura*, 14, 84, 38-46.

KNÖRR, H. (1989): "Koldo Mitxelena, El hombre y el científico" (traducción de l'article original dins *Revista de Catalunya*, n. 18. 1988), *Bilduma*, 3. Erretereria: Comissió de Cultura de l'Ajuntament d'Erretereria, 17-30.

MITXELENA, K. (1955): "*Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, por J. Corominas. Vol. TI, OH-K. Editorial Gredos. Madrid, 1954". ASJU, 11, XIII-XXVII.

— (1972): "Nota marginal sobre la huella latina en la lengua vasca". FLV, 4 (10), 5-25.

— (1973): 3. arg. *Apellidos vascos*. Donostia: Txertoa.

SOLÀ, J. (ed) (1999): "L'obra de Joan Coromines". *L'obra de Joan Coromines: cicle d'estudi i homenatge*. Sabadell: Fundació Caixa De Sabadell, 211-219.

Koldo Mitxelena, Unibertsitateko maisu handia

Pello Salaburu

Zail egiten zait ganorazko zerbait idaztea Mitxelenari buruz. Berak utzi gintuenetik urteak badoaz, eta iragaten ari diren urte hauetan jende anitz mintzatu da, eta ongi, maisu handi hark utzi lanaz. Mitxelena irakasleak idatzitakoak behin eta berriz irakurtzen ditut, eta aldi bakoitzean ohartzen naiz zenbat zekien eta nola zen gauza kezkatzen zuten gaien gainean bere iritzi ongi funtsatua egituratzeko. Itzal handikoa zen Gasteizen ni hara joan nintzelarik eskolak ematera, berak zuzendu zidan tesiaren defentsa egin ondoan. 1983a zen, oker ez banaiz. Tesia idaztea ez zen batere erraza izan. Gogoan dut, nola joaten nintzaion, bi udatan gutxienez, abuztuko larunbat goizetan, Errenteriako bere etxera. Eliza inguruan. Goiz haietan, atzendu gabe dudan esaldi honekin agurtzen ninduen Matildek: "Pues ya le está haciendo sufrir este hombre". Hala zen, tesia hartu eta, ez pasartez pasarte, baizik lerroz lerro irakurtzen nuen berarekin, bera mahaiaren alde batean zela eta ni bestean. Gustukoa ez zuen zerbait entzuten zuenean expantuka hasten zen, ez nekiela nik norekin haserretzen zen gehiago: lerro hartan aipatzen nuen autorearekin, bere buruarekin, edo zeharka nik esana gogora ekartzen zion beste hirugarren lagunen baten pasadizoarekin. Bazen denetarik. Hola egon nintzen orduan, nahiko galdua, nire kalkuluen arabera hogeit bat urte gehiago beharko baike nituen tesia osorik elkarrekin irakurtzeko. Eta halako batean gertatu zen miraria. Ladefoged fonetikaria aipatzen nuen nonbait, eta zerbaiten gainean berak esana biltzen nuen hitzez hitz. "Ez, Ladefoged-ek ez du holakorik esaten, ez da hala!", bota zidan. Eta nik: "Bai, bai, hala dio". Nik ez nuen errurik Ladefogedek esaten zuenaz, zernahi zela ere, baina segur nintzen hala zioela. "Non?, non dio hori?" Nik iturria aipatzen nion,

Koldo Mitxelena, el maestro

La lectura y relectura de sus escritos me confirma con más fuerza en cada ocasión la enorme erudición que poseía este hombre y la habilidad que mostraba en su capacidad para estructurar su opinión sobre los temas más diversos.



Salamancako Unibertsitatearen fatxada nagusia.

Juan Miguel Lacunza

hantxe zen idatzia, baina alferrik. Eta horretan, hizketan ari nintzela, hara non nire begiak apalategi batean pausatzen diren eta liburua hantxe ikusten: *A Course in Phonetics*. “Hor! —esan nion—, liburu horretan esaten du. “Bai?”, tematua segitzen zuen, “non?” Eta lerro bera irakurri nion, baina berak zuen Ladefogeden liburutik orain. “A, egia! Bada, aurkeztu tesia nahi duzularik”. Holaxe amaitu zen eztabaida eta handik aste batzuetara izkribua behar bezala josia nuen, unibertsitatean uzteko. Zalantzan egon nintzen gero Ladefogedi ez ote nion aldaretxo bat jarri behar bulegoan, kandelak eta guzti.

Gasteizen nintzela, ate batean ageri ziren Mitxelenaren eskola-orduak, paper batean apuntatuak. Ez dakit zenbat gai irakasten zituen, bi edo hiru. Eta eskola horietara joaten ginen, gainera, ikasleekin batera, irakasle batzuk ere. Patxi Goenaga eta biok behin baino gehiagotan joan ginen elkarrekin, nola genituen gure eskolak, libre ginen edo ez. Gela bitan banatzen zuen iraganbidean ibiltzen zen Koldo, alde batera eta bestera, gelditu gabe, egokitu zitzaion gaiaz, nonbait, mintzo zen bitartean. Eta “nonbait” diot, ez baitzen batere erraza jakitea zein gairi heltzen zion aldi bakoitzean. Ikasle banintz, behin baino gehiagotan egin nuen nire baitan, ez nekike zuzen Mitxelenari egotzitako ikasketen informazio publikoan ageri ziren irakasgai haietatik, zeintan ote zen aldi bakoitzean. Baina gozamina zen hari entzutea. Beti ateratzen zituen gai berriak, bata bestearekin lotu, beste zerbaitekin erlazionatu, tarteka politikako aipamen bat, edo batzuek ezagutzen zuten norbaiten gainean hitz pare bat, eta aurrera segitzen zuen, berriz ere Axular, Lizardi edo Mogel ekarriz eztabaidara. Haren irakaskuntzak mundu bat osatzen zuen, mundu aberatsa, joria, berak bere jakituriarekin xarmanki bideratzen zuena. Eskuetan eramaten zuen plastikozko zigarreta ordain bat, eta noizbehinka begiratzen zion. Beste batzuetan, behatu eta ahora eramaten zuen, txupakia balitz bezala, ez baitzuen plastiko zati hark inolako kerik ateratzen. Edo nik ez nuen ikusten bederen. Ez zen han libururik, ez zen, aski bakanka ez bazen, ohar orririk inon ere. Dena buruz.

Eta? Heriotzak harrapatu eta alde egin zuelarik, huts handia leporatu zion baten batek. Ez omen zuen “eskolarik” sortu, eta hori omen da unibertsitate irakasle on baten oinarrizko eginkiz-

Debía correr el año 1983. Mitxelena corregía las páginas de mi tesis, y lo hacía de forma no habitual. Los sábados de agosto, por la mañana, durante dos largos años, acudía a su casa de Rentería, al lado de la iglesia. La frase con la que Matilde, su esposa, me saludaba cuando abría la puerta ha quedado grabada en mi memoria: “Pues ya le está haciendo sufrir este hombre”. Y es que leíamos la tesis los dos en equipo, no por párrafos, sino línea por línea, palabra por palabra. Calculé que en unos veinte años habríamos acabado. Ladefoged me salvó.

Después, cuando empecé a dar clases en Vitoria, varios profesores acudíamos a las suyas, junto con sus alumnos. Koldo recorría el aula en ambos sentidos, por el pasillo central, mientras explicaba el tema, aunque no resultara fácil saber a qué asignatura se estaba enfrentando: saltaba de un tema a otro, de un problema a otro, para volver a retomar el hilo abandonado minutos antes. Lo veo aún, con su cigarro de plástico en la mano. No recuerdo libros ni apuntes sobre su mesa, la memoria le sobraba. Era un placer escuchar sus palabras.

zunetako bat. Eta hala da, hori hala da, nahiz hori ere gaur egun gero eta nahasiago gertatzen den, erreferentziak ez baitira orain erakundearen barnean akitzen, eta harremanak nazioarte mailan eratzen baitira. Baina bestea, ordea, ez da egia: nire ustez, eskola handia sortu zuen Mitxelenak. Hiztegi kontuetan bistan da, OEH abian jarri zue-netik, lexikografiak indar handia hartu du Ibon Sarasolak egin duen lanarekin. Baina berdin gertatzen da gramatikan eta beste hainbeste arlotan ere. Gaurko irakasle anitz haren itzalekoak gara, eta harenganik edan dugu. Ez bakarrik eskoletan, eztabaidak eta elkarrizketak eskola formaletatik kanpo ere gertatzen baitziren maizkara. Behin irakasle handi bat ekarri nuen Estatu Batuetatik. Ken Hale MITeko irakaslea zen, eta mintegi bat ematera gonbidatu nuen, urtea Holandan ematen ari zuela baliatuz. Tratu handia nuen minbiziak gazte eraman zuen irakasle harekin eta familiarrekin. Bera izana zen Rudolf de Rijk hizkuntzalari holandarraren tesi zuzendaria, urteak lehenago, euskal erlatiboak aztertu zituelarik. Ken Halek ema-

ten zuen mintegi hartan esertzen ginen zenbait lagun, Mitxelena bera ere, eta bien artean sortzen ziren eztabaidak ikustekoak izaten ziren. Ez zen, ordea, han akitzen kontua, gero hoteleko sarre-rako besaulkietan segitzen baitzuen eztabaidak. Behin australiar txakurrei buruz aritu ziren, ez dakit zer duten Australiako txakurrek, beste txakurrek ez dutena. Halek ongi ezagutzen zuen Australia, han bizi izan baitzen hainbeste urtez: bere seme zaharrenarekin walpirieraz mintzo zen. Eztabaida horietatik libratzeko eskatu zidan Kenek halako batean, mesedez: "Adieraziko zenioke gaur ezin dudala? Leher egina nago, eta eztabaida horiek agortua uzten naute".

Euskal Herriak Mitxelenari asko zor badio ere, Euskal Herriko Unibertsitatearen zorra bereziki handiagoa da. Salamancako unibertsitate historikoa utzi eta hona etortzea deliberatu zuen, gure unibertsitate publikoa indartu nahirik. "Han bezain ongi ez gara inoiz ere ibili gure bizitzan", entzun nion behin baino gehiagotan Matilde bere andreari. Segur aski ere, anitz zuen galtzeko erabaki horrekin, eta ez gehiegi irabazteko, garai nahasi haietan. Deustuko errektoreak berak esan zidanez, eskaintza ona, izugarri ona, egin omen zioten Deustun, baina berak nahiago izan zuen unibertsitate publiko sortu berrira etorri. Hori nekez eskertuko dugun mesedea da. Unibertsitate gizona zen Koldo, eta bazuen herriaren zerbitzuaren zentzua barneraino sartua. Horregatik ezin izan zien uko egin gainerik behiiti, eta ustekabeen, egun batetik bestera erori zitzaizkion ardura batzuei. Lasaiago zegoen, bai, Gaztelako goi ordoki bare hartan, gure giro aldrebestu kalapitatsuan baino.

1987an gizon handi batek utzi gintuen. Maisu handi batek. Unibertsitatea indartu zuen irakasle eta ikertzaile batek. Saihetsi ezin den erreferentzia batek. Eskola ederra sortu zuen, baina zordun utzi gintuen, eta hala segitzen dugu, urteen buruan ere. Ohore Koldori.

Estamos en deuda con él. Lo está el País Vasco, y lo está la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), porque Koldo abandonó un puesto que le era muy satisfactorio y cómodo, su cátedra en Salamanca, para impulsar la naciente universidad vasca. Lo hizo, seguramente, en contra de la opinión de Matilde, quien siempre recordaba que en ningún lugar habían vivido tan bien como en Salamanca. Con esa decisión tenía más posibilidades de perder que de ganar, sobre todo en aquellos años complicados. Me comentaba el rector de la Universidad de Deusto que Koldo le había rechazado una oferta magnífica. Prefirió acunar a la nueva universidad.

En 1987 nos dejó un gran hombre, un gran maestro, un gran profesor e investigador, una referencia ineludible para todos los investigadores del idioma.



Salamancako Unibertsitatearen liburutegia.

Juan Miguel Lacunza

La otra herencia de Koldo Mitxelena

José María Sánchez, *Txepetx*

La pregunta que se me hace y que no tiene una respuesta breve es ésta: ¿qué ha aportado Michelena al campo del que usted es experto o especialista. La pregunta que tiene una respuesta breve, aunque no fácil, requiere en cambio una pequeña “conmutación” gramatical: ¿qué me aporta (en el presente) Mitxelena a mi área de trabajo?

La respuesta es ésta: respecto al campo (al árbol en el que sigo cultivando mi propio *rizoma*) ha sido como el tutor de escuela y de jardinería. Lo ha sostenido en su crecimiento vertical, me ha impulsado a considerar cada proyección horizontal que se obtenía (en cada resultado “socializable”), como fase transitoria y no fase final, me ha ayudado a relativizar las heridas del tiempo, mostrando que lo que las cicatriza es la consistencia que le da al tronco cada nuevo estirón vertical.

No ha sido el único tutor, es verdad. Como esos tutores que están formados por una superposición de estacas según el árbol va ganando en grosor, en peso de ramas, bayas o frutos y en altura, otros apoyos han venido a tutorizar el crecimiento. Mi padre, Aingeru Irigaray, René Rangel, Caro Baroja, José Martín Palma, Iñaki Larrañaga, Alain Masson..., entre otros, han sido también tutores, y alguno de ellos, incluso, con el tiempo y la cercanía profesional, amigos. Tan diferentes como son (en talentos, en asignaturas) comparten la esencia de una misma función.

Pero sola o acompañada de otras, la tutoría de Michelena siempre ha estado ahí. Y es lo mismo respecto a mi proceso de aprendizaje, no es el único que he tenido ni como lingüista ni como persona, pero sigue —aún ahora en el recuerdo— impulsando un “plus ultra” de un modo muy suyo: cuando el lingüista puede torcer a la persona, sus refuerzos (sus

Koldo Mitxelenari zor diodana

Koldo Mitxelenak, aditua naizen jakintza arloan zer ekarri duen galdera erantzun beharrean, aldaketa bat txertatu eta hurrengo galderari erantzungo dio idazlan honek: Zer ekarpen egiten dit (gaur egun) Mitxelenak neure lan esparruan? Izan ere, Koldo Mitxelena hizkuntzalariarengan eta pertsonarengan, bietan aurkitzen dira aipatutako galde-
raren erantzunak. Hizkuntzetara gerturatzeko eta hauek bereganatzeko zuen gaitasuna gogoratzen digu, aparteko hizkuntza kompetentziaren jabe izaki; baita hizkuntzei buruzko jarrera ere, orduan ere ezohikoa zena, irekia, sana, jakin-minezkoa eta arduratsua. Lan honek, Koldo Mitxelenaren hizkuntza biografiatik abiatuta, bide egokitik goazen edo ez antzematen laguntzen digu, galdetuz egungo hezkuntza sistema, hizkuntza politika eta gizarte eragileak Koldo Mitxelenak erakutsitako eredutik gertu ala aldentuta ote dabiltzan. Apaltasuna, gizatasuna eta kontzientzia, bere osoan, ezinbesteko osagai gisa aurkezten zaizkigu lerro hauetan bere garaiko erronkei bezala, gaur egungoei, bide azertatutik erantzuten asmatzeko.

lecciones de refuerzo) son personales: Koldo como persona. Cuando la persona, en mí, puede torcer al lingüista (haciéndole olvidar que la música, por familiar o por exótica que en principio nos sea, cada quien la capta y la llega a ejecutar con maestría sólo desde su propio instrumento) sus lecciones de refuerzo son lingüísticas: Koldo como lingüista.



dad. De hecho es el hablante con mayor competencia lingüística que yo personalmente he conocido. Lo podemos expresar así: “un lingüista con un conocimiento poco común de idiomas muy diversos y un multilingüe fluido con un conocimiento racional extraordinario de los sistemas lingüísticos que ponía en circulación.” Por eso las ideas sobre el lenguaje de Mitxelena nunca deberían tomarse a la ligera, como tampoco se puede asimilar a la ligera su forma de expresión. Necesitan una preparación, me atrevería a decir que una “iniciación”, lingüística, sí, pero iniciación.

¿Cuál era la actitud de Mitxelena hacia las lenguas que conocía?

Una actitud aditiva (de suma), no sustractiva (de resta). No le tenía manía a ninguna, no pensaba que ninguna le sobraba, de hecho pensaba más bien que en cualquiera de ellas tenía “room for improvement” (margen de mejora); mejora que, a la menor oportunidad, no dejaba de concederse a sí mismo.

Les daba a todas ellas su valor. Y por tanto... en él las lenguas no dividían: porque multiplicaban la realidad de su percepción, multiplicaban su percepción de la realidad. Y porque multiplicaban su percepción de la realidad no tenía prejuicio alguno no sólo a las lenguas que conocía más o menos, sino hacia cualquiera lengua que desconociese.

Mitxelena hubiera sido incapaz de responderle “hábleme usted en cristiano” o cualquiera de esas lindezas a alguien que le hablara, incluso en la cocina de su propia casa, en una lengua que desconociera totalmente. Hubiera buscado una lengua común en la que poder entenderse con el interlocutor y, llevándolo educadamente al despacho, hubiera puesto inmediatamente en marcha su “grabadora mental” para aprovechar la oportunidad de incorporar elementos de ese nuevo sistema lingüístico. A poco que el otro tuviera cierta cultura gramatical le habría comenzado a preguntar cómo funcionaba en esa lengua el género, la voz pasiva, los pronombres personales, la semántica del parentesco... En lugar de acabar el día cabreado sintiéndose “colonizado”, habría acabado contentísimo porque su caudal lingüístico estaba ahora más lleno.

Estos dos aspectos están tan unidos en él, tan bien entrecruzados, que a la pregunta original que sirve como punto de arranque de este artículo también se puede responder así: en este ámbito, la mejor y mayor aportación de Mitxelena al especialista y a la especialidad es Koldo Mitxelena.

Como parece una respuesta irónica, y no lo es, voy a desarrollarla para que podamos entenderla en toda su seriedad y su actualidad.

Dentro de la teoría de los aprendizajes, que es el eje de mi tesis doctoral que él dirigió:

**¿Cuál es el perfil lingüístico de Mitxelena?
¿Cómo era su percepción de las lenguas?
¿Cómo su actitud ante ellas? ¿Cómo su uso, o mejor, su acción? ¿Cómo era su capacidad lingüística?**

Era un hablante completo de lenguas muy diversas. Conocía sistemas lingüísticos muy dispares, y era capaz de progresar con extraordinaria rapidez en ellos. No es en que todos hubiera hecho el viaje completo desde la ignorancia al conocimiento completo (¿cómo hacerlo con lenguas como el Hitita o el Antiguo Esloveno?) pero lo había hecho en una cantidad muy notable y había adquirido la capacidad de pasar de una fase a otra (del desconocimiento al conocimiento cultural; del conocimiento cultural al conocimiento natural) “acortando los tiempos”, con enorme facilidad. Era una persona con una extraordinaria competencia lingüística. Se me dirá que para eso era un lingüista. Pero es que no todos los lingüistas están dotados de esa capaci-

En fin ¿cómo era su actuación frente a eso que se ha dado en llamar “conflicto lingüístico”? Nunca le gustó interpretar la normalización en esos términos. Prefería interpretarlo como déficits que, en su diacronía, y por razones muy diversas, incluidas las políticas, las lenguas adquieren y que son susceptibles de compensación sincrónica cuando los hablantes o la sociedad así los reconocen y se ponen a remediarlos. Nunca puso el poder de acción y decisión fuera, como causa ni como remedio. Comprendía que está dentro, y porque está dentro puede causar cambios y remediar extravíos externos. Nada nos condena ni a la ignorancia ni a la impotencia.



Su historia personal es la historia de eso. Mitxelena no logra esa competencia lingüística extraordinariamente rica y esa actitud hacia las lenguas (las suyas y las de los otros) inusualmente sana porque haya tenido un entorno social privilegiado. Decía que su aula de estudio de bachillerato había sido *el topo* de Rentería, y la cárcel, su universidad. Esa fue su mayor creación: donde otros talentos se dispersan o se diluyen, y otros talentos se resignan o se frustran, él convierte el uso que le toca, por negativo que parezca, en uso positivo o, al menos neutro. Hace así lo más difícil: convertir al enemigo (la dificultad externa) en aliado de su objetivo de aprendizaje. No se queda atascado en la culpabilización hacia el otro ni hacia sí mismo: se libera tanto del pasivismo victimista (*hágalo usted por mí puesto que tiene conmigo una deuda histórica*) como del activismo masoquista, del auto-odio (*me gustaría hablar lo que no sé; en consecuencia lo que ya sé, no me gusta, o sea que me disgusta a mí mismo*). Tomó, en su temprana juventud, la responsabilidad de aprender lo que comprendía que le gustaba o que necesitaba. Y, en consecuencia, en la siguiente fase de su vida tomó la responsabilidad de compartir sólo (y todo) lo que a él le había servido, y de no rehusar nunca implicarse en compromisos sociales que se plantearan desde el mejorar lo que había, mientras se seguía buscando lo mejor, y no en sentirse impotente para cambiarlo o en pensar que era destruyendo todo como se cambiaba todo. “Lo mejor”, me dijo en una ocasión referido al trabajo intelectual “es enemigo de lo bueno”. Hoy, cotejándolo con el ejemplo de mis otros tutores, lo pondría en estereo así:

A lo mejor no se llega ni esperando interminablemente a Godot, ni haciendo tabla rasa a lo talibán. Lo mejor es un horizonte inalcanzable

hacia el que se camina dejando cada día las cosas mejor de lo que las encontramos el día anterior.

Pero para eso se necesita, es verdad, saber distinguir lo falso de lo verdadero, lo mejor de lo peor. Y esa sabiduría, en una época de absolutización del relativismo como la nuestra, es muy difícil de comunicar y de compartir, ni incluso para el lingüista que sabe que hay un límite gramaticalmente muy preciso entre lo correcto y lo disparatado, y que el “todo vale” lleva a la ruptura de la comunicación del sistema lingüístico propio y, lo que es más grave, del propio sistema universal de comunicación.

La diferencia entre un sabio y un memo no está en el número de libros que uno u otro haya leído. Tampoco en que uno tenga el monopolio del acierto y el otro del error. La diferencia está en que el necio nunca sabe cuándo está equivocado, y el sabio sí, a causa de lo cual el memo se equivoca cada vez más y el sabio acierta cada vez más.

El sabio no es alguien que lo sabe todo, o que sabe de todo, sino alguien que sabe qué es lo que sabe y qué es lo siguiente que le queda por saber, y se pone inmediatamente a aprenderlo. Mitxelena sabía que la lingüística es un terreno especialmente favorable para la sabiduría, porque es el terreno más propicio para la humildad: sepamos una sola o varias lenguas, son siempre muy pocas de entre las miles de lenguas que se hablan y se han hablado en el mundo, y aún lo que el hablante sabe de la que mejor sabe de ellas es una mínima parte comparado con lo que aún desconoce.

Sabio en ese sabio sentido, Mitxelena siempre fue muy humilde para proponer su propia

biografía lingüística personal como modelo de normalización. Pero precisamente porque no se consideró un superhéroe de las galaxias, sino un simple ser humano, pensó que lo que él, poco o mucho, pero a juicio de todos bastante satisfactorio, había logrado, lo había logrado en condiciones externas tan poco favorables que a poco que esas condiciones fueran mejores, deberían, en buena lógica producir cada vez mayor número de resultados lingüísticos satisfactorios. De hecho el que eso ocurriera sería la señal inequívoca de ir en el buen sentido de la normalización.

¿Está ocurriendo así? Incluso parcelando sus logros ¿su **aptitud** hacia las lenguas es hoy menos excepcional? ¿Su **actitud** hacia las lenguas, hacia el lenguaje humano en su conjunto de lenguas plurales y necesarias, es hoy más general? Independientemente de las opciones concretas de cada uno, con las que es legítimo, y hasta saludable, discrepar, **su forma de actuar**, de implicarse en los retos de su tiempo y su país ¿es hoy la normal? ¿Está produciendo, o intentando al menos producir algo de eso el modelo educativo, la política lingüística, los agentes sociales (los partidos políticos, las organizaciones sindicales o profesionales, los medios de comunicación...)?

Que cada uno mire alrededor y lo diga, Si sí, mi más sincera enhorabuena: están ustedes saliendo de la crisis, cualquier cosa que les digan esta noche por la televisión. Pero si no, si se está en eso peor que en vida de Michelena, la situación, objetivamente, desde la distancia que da la imparcialidad, es peor. Y ya sé que eso puede parecer paradójico porque cualquiera dirá que hay más conciencia lingüística o más conciencia política o más conciencia ecológica que hace treinta años, por no hablar de que hay más tecnología que permite un acceso a mayor información a mayor número de personas. Pero es que el problema está ahí y es ese. Decía Machado que “por mucho valor que tenga un hombre nunca tendrá un valor más alto que el hecho mismo de ser hombre”.

La humanidad y la conciencia, que son ambos sustantivos, son como esas sustancias que cuando se le añaden “aditivos” cambian no sólo su sabor, sino sus propiedades verdaderas, su valor nutricional.

Mitxelena no puede ser definido como un hombre con conciencia lingüística, o con conciencia política, o con conciencia social. Mitxelena ha sido, es y será un hombre con conciencia, que puso conciencia en lo que emprendió, y a quien su humanidad nunca le dejó pararse a mirar complacientemente al suelo y vivir de las rentas, sino que lo tuvo siempre subiendo la altura del techo para dejar una amplia cámara de aire encima de la cabeza. Cuando la cabeza se airea, no se marea.

La conciencia lingüística y la conciencia política, la conciencia religiosa, la artística o urbanística o, ya puestos a ello, tanto da, la conciencia gastronómica, pueden ser enseñadas de fuera, incluso pueden ser simplemente contagiadas, con muy poco esfuerzo personal por parte de uno. La conciencia, pura y simple, no. La conciencia es como ese viento, del que habla Jesús a Nicodemo, que se oye su voz, pero sólo dentro, y que no se sabe de dónde viene ni adónde va. Es una luz que aparece y desaparece cuando menos se la espera, como en el topo de Rentería, y donde menos se la imagina uno, incluso tras las rejas de una prisión franquista para prisioneros políticos. Y desaparece sin avisar. Eventualmente alguien aprende a reconocerla cuando se presenta, a acecharla cuando no está, y a seguirla cuando vuelve a aparecer. Y eventualmente ese alguien está bajo su tutelaje el suficiente tiempo como para arrancar de ese haz de luz, como si de una cesta se tratara, un recio cordel dorado y dejarlo atado al centro de su corazón, pendiente de cuando el hilo se tensa demasiado, soltarse, y cuando se suelta demasiado, ponerse en tensión. Y así en todos los vaivenes y altibajos de un largo viaje, no porque sea largo, sino porque vuelve a empezar todos los días. Es eso y no otra cosa lo que hace del hijo del cesterero de la Calle de Arriba no un erudito respetado, ni un intelectual de altura, ni un consejero imprescindible, o un hombre público, o un escritor polígrafo, ni un conversador ameno, o un polemista fogoso, ni un maestro inolvidable, ni siquiera un tutor irremplazable o un lingüista excepcional. Hace de él mucho más que eso: hace de él un Koldo Mitxelena.

Noara del Montgó, abril, 2015

Koldo Mitxelena hiztezigilea


Ibon Sarasola

1 950eko hamarraldiaren erdialdean Euskaltzaindiak agindu zion Koldo Mitxelenari Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* (DVEF) hiztegiaren bigarren argitaraldia prestatzea, lehena ahitu berria baitzen. Ordurako igaroak zituen Koldok Francoren altxamendua-
ren ondorioz jasan zituen heriotza zigorra eta bi espetxealdiak, gerrakoa eta 1946-1948koa. Bukatuak zituen, orobat, Filosofia eta Letretako ikasketak, 1948an hasi zituenak, eta doktore tesia prestatzen ari zen antzinako euskararen sistema fonologikoz. Euskaltzaindiaren mandatu hori dela medio hasten da Koldo Mitxelenaren hiztegi gintza.

Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* hiztegia da dudarik gabe XX. mendearen hasiera arteko euskal hiztegi gintzako lanik behinena. Baina, noski, ez zen akatsik gabea. Akats horietako batzuk bizi izan zuen garaia dagozkie. XX. mende hasierako euskaltzaletasunak, oro har, ez zuen begi onez ikusten ordura arteko euskal idazleen lana, erdarak kutsatuegia iruditzen zitzaioelako. Ikuspegi horrek erabat eragiten dio Azkueren lanari. Mitxelenak askotan aipatzen zuen adibide batek ondo argitzen du Azkueren jokaera: DVEF-en *zeru goien* esapidea agertzen da, Azkuek honela azaltzen duena: "Cielo empíreo. Voz muy empleada entre los predicadores. No sé si el pueblo se ha valido nunca de ella". Eta galdetzen zuen Mitxelenak ea zein herrik erabiltzen zuen "cielo empíreo" bezalako esapide bat barra-barra. Ildo beretik, aski zuen hitz bat Lardizabalen *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*-n aurkitzea Zaldibiako gipuzkerakotzat markatzeko. Antza denez Lardizabalek ezin zuen euskarazko libururik irakurri, ez etxe koaz kanpoko euskaldunen hizkerarik entzun eta erabili. Azkue hiztegi gilearen gabeziez gehiago jakin nahi duenak probetxuz irakurriko du Mitxelenaren *Estudios sobre las fuen-*

Koldo Mitxelena lexicógrafo

Koldo Mitxelena comienza su labor lexicográfica a mediados de la década de los 50, cuando, a petición de Euskaltzaindia, acepta encargarse de la preparación de la 2ª edición del diccionario vasco más significativo —no por



tes de *Diccionario de Azkue*, 1970. urtean argitaratu zuena.

Mitxelena Azkueren Hiztegi nagusiaren bigarren argitalpenari ekin zion garaian gorago aipatu dudako doktore tesia prestatzen ari zen. Bi egitasmoek bazuten gauza bat lotzen zituen: gure literatur tradizioko autoreen azterketa ahalik eta zabal-zehatzena eskatzen zuten Koldoren ustez. Horiek horrela, Mitxelena DVEF-en bigarren argitalpenari ekin zionean bi egiteko nagusi zituen: alde batetik DVEF-en lehen edizioaren azterketa kritikoa, eta bestetik literatur tradizioko autoreen azterketeren ondoriozko materialak lehen edizio horren tesuan txertatzea.

1960ko hamarkadaren bukaera aldera, DVEF-en bigarren argitalpenaren egitasmo hori aski aurreratua zegoelarik, Euskaltzaindiak konkurtso batera deitu zituen argitaletxeak, jakiteko nor eskaintzen zuen aukera onena DVEF-en bigarren edizio hori kaleratzeko. Konkurtsora aurkeztu zen José M^a Martín de Retanari Koldo Mitxelena betoa jarri zion, besteak beste *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en 36 liburukiak berrargitaratu zituelako inolako baimenik eskatu gabe eta autore eskubiderik ordaindu gabe, horren jabe zen Eusko Ikaskuntza Francoren diktadurak ezeztatua zuela baliatuz. Mitxelena betoari erantzunez, Retanak Azkueren DVEF-en jatorrizko edizioa berrargitaratu zuen, edizio faksimilean, Euskaltzaindiaren inongo baimenik gabe, baina euskara batuaren azuia zela-eta Mitxelena bidea gogoko ez zuten zenbait euskaltzainen konplizitateaz.

Gertakari honek erabat aldatu zituen gauzak: Azkueren DVEF berriro salgai zegoelarik, ez zen bideragarria hiztegi horren edizio "hobetua" plazaratzea. Egoera berriak erabat aldarazi zion Koldo Mitxelena prestatzen ari zen hiztegiari buruzko planteamendua. Euskal Hiztegi bat moldatzen jarraituko zuen, baina berak nahi zuen hiztegiari ekinez. Planteamendu berri horretan, euskal literatur tradizioaren hitz ondarea izango zen hiztegiaren ardatz, hots autore zaharren eta berrien idazlanek mamituko zuten batez ere hiztegia. Aita Villasantek garaitu hartan publikatu zuen *Axularren Hiztegiaren* ildoko zerbait izango zen, baina gure literaturako autore garrantzizko guztiak bilduko zituen. Hortaz, hitz bakoitzean, gaztelaniazko baliokideaz

ello carente de errores y omisiones voluntarias e involuntarias— de la primera mitad del s. XX; el *Diccionario Vasco-Español-Francés* (DVEF) de R. M. Azkue. En ese mismo periodo Mitxelena está realizando su tesis doctoral (*Fonética Histórica vasca*). Ambos proyectos comparten la necesidad de analizar de la manera más amplia y exhaustiva posible la tradición literaria vasca.

La publicación de una edición facsímil del diccionario de Azkue, hecha sin la autorización de Euskaltzaindia, malogra y pospone la publicación de la edición actualizada y prácticamente finalizada del DVEF de Mitxelena-Euskaltzaindia. Este hecho provoca un giro radical en el proyecto lexicográfico de Mitxelena: hará otro diccionario, cuyo eje vertebrador lo conformará la literatura vasca clásica y moderna. Elegirá como corpus una muestra muy amplia de obras escritas en vasco, dotará a las palabras de su traducción castellana y completará la información con la ofrecida por otros lexicógrafos vascos (incluida la del DVEF) y con abundantes ejemplos de la palabra en los contextos utilizados.

teno: a su lado en término semejanza en forma y sonido, sin que se alcance a ver cómo se relacionan entre sí. Me refiero a *alibulo* (hay también *alibe* en Azkue) «jalea», que *Fon. tradic.* «de du costis, landas», no sé si muy exactamente. Cf. *Man.* dev. II, 16: *Bençuaric herioe / herioe garrotogoz, / eta aitzaco Maquir / herioere dardioe*.

322. Honor, onizura.
Error por *anduzen*, en RS. 392: *Emoyte anduzaren / arroyito laci mingarri*. «El dar en honor, y el tomar causa dolor». Cf. además RS. 507: *Dalloragere onizuraren onizur / gure joaco yuztebio gura*. «Aun el mas rayo fama de principal / escribe se nos va el humo de la carbonera». Para testimonios de esta palabra en la literatura medieval, véase A. Campillo, *Euskarieta*, 11.^a serie, pág. 69, señalado por J. García, *RIEV* 26 (1935), 347, 323. Herriaga, *iburría*.

RS. 8: *Tharrie guano lapre gura*. «Hasta la horniga desta compaña». Cf. además RS. 183 y 526, pero también Land. *Sote yaurria* (2.^a itzoa, *chimerria*).

324. Hogar, *ecorruza*.
RS. 238: *Seyar deuzanre ecorruzen / euan darro aitaruan*. «Lo que oye el niño en el fogar / suele decir en el portal». También RS. 469: *Ecorraz loco ezea*, «casa sin fogar».

325. Honor, *indaxona*.
RS. 379: *Indaxoe el equero / baroc yndaxa*. «Después de muertos los pueros / hojan los linaxos».

326. Huello, *zarrina*.
RS. 199 y 450.

327. Huesos (enfermedad de), *huzaria*.
As. 182: *Charritico... delhuzarian Agurte lortzen da*. Más precisamente es «gria».

328. Huir, *bea*, *leiti*.
RS. 422: *Astae Chardón arroti / ta nie jale dayda*. «Ten Hordelío a case Oan, y yo hare hayda». Cf. además RS. 343, citado arriba, 337.

329. Hurto, *epurroa*.
Léase *epurroa*. Cf. As. 359: *ete Foster adulerio delicoa pates, epurroa ahalte guria*.

I

330. Igual, *burquitas*.
RS. 293: *forma burquide gaste*. «El señor malo para igualarse con él».

331. Indomito, *berriua*.
Diccionario la fuente. Según Azkue, *berriua* «barro, esquivo» es «sio-nax» y *guro*. Exactamente en Lazo y *Reverio* *Humillados* así (*berriua*) a las vaquillas *bravas* que vivían en el monte *Isakibid*. Lo mismo ocurre con las vacas (*deli hute batza*) del monte Larraz, *Emadax berriua*, según P. Larzábal, *Gure Herria* 10 (1930), 83 s. En *Echalar* se decía *pestra*, según fray Eusebio de Echalar, *Yuzteza*, núm. 16 (1935, 7-8), pág. 207.

332. Imposición, *inhabilidad*, *peña*.
As. 243: *eritae eta lequere*. El segundo, usado como adjetivo, en As. 177 (véase también pág. 99): *Cer equer vize dugu ignen duela... catar eritidac ezterri datera harrarrie de hipitac?*

334. Impugnación, *narritamendu*.
As. 401: «...halla beccolavere occorramendua, narritamendua, eta iztamendua, izatan bekar da itaz egul-
ner... jarraitu. Para el sentido, cf. Fouz: «coleravere leten-
bico narritamendua, le prestar asunt de la colera».

335. Inclinar, *arrea*.
Ms. 119 corrigir: «arrea, gurea». Su autor piensa, por lo tanto, que se trata de una variante del conocido *gure* que, como palabra autónoma, aparece una vez en RS. 402: *Arreua euec yegura*. «Coyado no soy ganso de ti». Cf. *Alibarro*: «inclination, progression: c. gñitx; gñitxi gure b. zolotzua». La voz se documenta también en Landocis (como traducción de «ganso» por lo general) y en As. 171: obra en *Aec nahi nitazque, Aetoric nahi çate, eta gura, Aec çalgait on, goro, eta çal*. Ocurrir también en los dos *Hidobert*, *Mendiburu*, etc. Cf. la observación de Chibarrat, *RIEV* 4 (1910), 228.

336. Inclinar, *aberru*.
As. 481: *Balka gaitiarquin ere aberrucez naitz erroti-
tera, nia erratidat, paratibico bidre errazago, plant
ago, eta planten ego dila*. Villanua, *Gern*, pág. 614, tra-
duce «me inclino a darte».

337. Inescusable, *mameoa*.
Cf. RS. 307: *Mameoa dapiq emeyten*. «Lo que no se le escusa de dar sabe dar». Como se ve, Larramendi no sólo usó mal la forma, sino que además le dio una interpretación poco satisfactoria: véase *RIEV* 21 (1910), 164 s. y *RAE* 10 (1954), 190. Lo más verosímil es que mameo proceda de *be-mam-a*, es decir, de una forma verbal de pasado, provista del prefijo *be-* y del sufijo relativo más antiguo: «lo que (ya) se dice».

338. Ingle, *itogre*.
Asignado, según Azkue, en vitz. mod.: cf. *FHV*, 338, nota. ¿De RS.?

339. Intelectual, *onditroa*.
340. Intelo, *onditroa*.
As. 5: *Çerl garriri: here arrençura, eguitroac ços-
tuc, nia onditroa çosta*. Y As. 326: *Ceren Isakia leude
batzuc hute occorrituac, arrençupile gaitzuc: Aetoric
onditroac, eta itceru gaitzococ*.

341. Infructuoso, *isabela*.
RS. 321: *Hurte japebio beuo / beuo obago*. «Mejor es el año tardío / que el infructuoso». ¿Tendrá esta hezax alguna relación con *isabell*, «equívoco» en Chibarrat, de donde *isabell* en As. 293, etc.?

342. Inhabilit, *zarrina*.
As. 181: *gaitze çulid, eta manalar çepait, de çulavre gure eta çurroa*.

343. Ingratitud, *ingratuona*.
As. 470: *Hale da handi, eta iznati bi garren beccol-
ta... ene here here ingratuonaz, letreua beccol
barrotac ere biditroa beçula hitzua*. Léase más arriba: *Epurroa gabe iznate huzeta da, eto ingratu*.

344. Inquilino, *gaitzaco*.
Conjetura con gran verosimilitud A. de Iturrigabeitia, *Egon* 20 (1962), 279. Que se trata del vitz. *gaitzaco*, con artículo *gaitzaco*, «ingrato», según Azkue, formado de *gaitz*, «equívoco» como *isabell*, «equivoc», infra, 320.

345. Inquisición, *errotuona*.
As. 105: *errotuonaz, itazgureuzanaz, barreneko her-
ritan eto berre çobere handi leiti batzuc*.

346. Intimidación, *estremedión*, *barredarria*.
Véase arriba, 241.

347. Juro, *marroa*.
RS. 191: *Harengo marroa*. «Qual el año tal el juro». En RS. 94 se tradujo «castror». Cf. Ms. 319: «marroa, juro deporillado».

“Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue”. 1970. L. Michelena.

eta beste hizteigileen lekukotasunez gainera, hitz horri zegozkion erabilera adibide garrantzizkoen berri emango zuen. Izan ere, hitzak esaldietan bizi dira berez, eta azken batean, hitz baten “defini-zioa” hitz hori agertu daitekeen esaldien multzoa da. Eta, noski, aipatu berri dugun ordura arteko euskal hizteigileen, zahar eta berrien, lekukotasunen bilketa horretan Azkueren DVEF beste hizteigileekin batera, Silvain Pouvreau, Larramendi, Harriet eta gainerakoekin batera, agertuko zen, zegozion mailan.

1970eko hamarkadaren bukaera aldera, Mitxelenak, bere hiztegi berriari ekiteko, fitxetan bildua zuen materiala ikaragarria zen. Garaitsu hartan deitu zidan, ea laguntzen nion material hura guztia antolatzen eta hiztegi forman tankeratzen. Hainbat aldiz bildu ondoren erabaki genuen Salamancara joango nintzela urte betez —bera han baitzen garai hartan katedradun— A letraren eredu bat berarekin prestatzeko. Urte hartan ikasi nuen, ia azken ñabarduretaraino, zer hiztegi mota zuen Koldok buruan eta zer metodologiaz baliatu nahi zuen helburu horretara heltzeko.

Urte hartako elkarlanetik atera genuen ondorioa hau izan zen: Mitxelenaren hiztegiak, planteamendu berrian, urte ez gutxi eskatuko zituen lana zen, batez ere “ordu libreetan” egin beharko genuen lana bazen. *Impasse* hartan, aterabidea Eusko Jaurlaritzatik etorri zen. 1983ko abenduaren 28an, Mikel Zalbidetik jakinarazi zidan, Koldok eta biok Mitxelenaren Hiztegiaren egitasmoarekin aurrera egiteko prest bageunden Jaurlaritza prest zegoela horretarako baliabide guztiak jartzeko.

Jaurlaritzaren jarrera hori erabakigarria izan zen *Orotariko Euskal Hiztegia* izenpean egituratu zen hiztegiarentzat. Hari eskerrak Mitxelenaren hiztegi materialak mekanizatzeko eta informatikak dagoeneko eskaintzen zituen lan tresnez baliatzeko aukera izan genuen, eta baita erredakzio talde bat osatzekoa ere. Orobat ahalbidetu zuen taxutzea euskal literatur tradizio osoaren corpus orekatu bat, garai eta euskalki bakoitzean idatziriko obra garrantzitsuenak biltzen zituena. Bost milioi hitzeko corpusa zen, hitz bakoitza bere esaldian kokatua ematen zuena, eta euskal hitz guztien historia erakusteko aukera ematen zuena. Baliabide horiekin hasi ginen lanean 1984an.

Para finales de los 70 Mitxelena tenía ya recopilada y organizada en fichas una cantidad ingente de material. Entonces me llamó para que colaborase en la sistematización del material y en su organización y presentación lexicográfica.

Un proyecto de esta envergadura y características no podía llegar a buen puerto sin una dedicación absoluta. Mikel Zalbide me comunicó el 28 de diciembre de 1983 que el Gobierno Vasco estaba dispuesto a asumir la financiación del proyecto. Esta decisión fue crucial para que el *Diccionario General Vasco* pudiera materializarse. En 1984 se empezó a trabajar con el equipo humano y el material informático necesarios para tratar un corpus literario vasco de 5 millones de palabras que reflejaba de manera equilibrada todas las épocas y dialectos literarios vascos.

A principios de 1987 estaba ya en imprenta el primer tomo y, a falta de la última corrección de las pruebas, Koldo Mitxelena murió el 11 de octubre de 1987 y no pudo ver publicado ese primer tomo, que vio la luz en diciembre de ese año. A aquel primero le siguieron otros quince tomos. Mi trabajo fue el del aparejador que junto con el equipo culminó la construcción de la casa del Diccionario valiéndonos de los planos que nos dejó Koldo.



1987. urteko hasieran lehen liburukia prest zegoen, inprenta proben zuzenketari ekiteko puntuan. Koldo Mitxelena urte hartako urriaren 11n zendu zen, lehen liburuki horren azken probak ia osorik zuzenduak zituela. Lehen liburuki hura urte bereko abenduan kaleratu zen. Ondoren etorri ziren hari jarraitu zioten beste hamabostak. Harrezkero, behin baino gehiagotan esan dudanez, nik aparejadore lana egin nuen Koldok utzi zizkidan planoekin eta lantaldearekin batera haren Hiztegiaren etxe osoa eraikitzeko.

Koldo Mitxelenari esker onez

Mikel Ugalde

Jaio zineneko mendeurrenean gauden honetan, hitz labur hauek zuzendu nahi dizkizut esker onez. Era xumean natorkizu, izango baitira zure izaera, lana eta eragina modu zuzen eta egokian azalduko dutenak.

Gogoan ditut, Koldo, joan den mendeko hirurogeigarren hamarkadako udan eskaini ohi zenizkidan solasaldirako aukerak. Telefonoz deitu, arratsalderen baterako hitzordua jarri eta harrera ezin hobea egiten zenidaten etxean Matilde zure emazteak eta biok. Jarraian tertulia gisako solasaldiari ekiten genion kafea hartzen genuen bitartean.



Matilde Martinez de Ilarduya emaztearekin eta Itziar eta Rafael seme-alabekin. Oiartzun.

Bisitaldi haietan ez nuen aurre-helbururik izaten, ez nintzaizun aparteko jakin-minez hurbiltzen. Hitz egiteko, eta batez ere entzuteko gogoak eraginda agertu ohi nintzen.

Nahiz eta jakintzaren alorrean zure ondoan hutsaren hurrena sentitzen nintzen, oso atseginak zitzaizkidan une haiek. Zu, Koldo, maisu, aditu, ikerlari zorrotz, hainbat zientzia alorretan jakitun, euskararen biziberritzearen aldeko apostu betean ikusten zintudan eta arratsalde horietan elizaren inguruko albisteak, politikak eta gizarte gorabeherak bere lekua izan ohi zuten elkarrizketa haietan.

Egia aitortu behar baldin badut, Koldo, bi arazo nituen. Lehenik eta behin, nire gaitasunaren muga nabarmena zela. Eskola handirik gabe, Papeleran lanean ibilia eta hogeitertekin Seminaria joana nintzen. Ezer gutxi Koldorekin gaiak aztertu eta jorrazteko. Bigarrenez, berriz, nik nire burua entzule gisa ikusten banuen ere, zuri ere entzutea gustatzen zitzaizula. Irakasten goi mailako izan zinen, baina entzule moduan ez zinen makala izan.

Apal-apal, baina aldi berean zinez, diozut zurekin izandako harremanak oso esker onez gogoratzen ditudala.

Hau guztia aitortu eta gero, eskerrak eman nahi dizkizut garai hartan hain bizi genuen herri-gintzaren ikuspegitik, herri honi eman zenion guztiarengatik. Gogoan dugu hirurogeiko hamarkada hura, Europa irakiten ikusten genuen, berebiziko aldaketa martxan zegoela nabaria zen. Euskararen munduan ere txinpartarik ez zen falta. Nork ez ditu, esaterako, *Zeruko Argiako* "Gazte naiz" orrialde haiek gogoan? Nola ahaztu Xalbador Garmendiaren *Historia triste bat* antzezlanak sortutako iskanbilak, harrotutako hautsak? Baserriaren eskutik jasotako euskarak hiria irabazi behar zuela ikusten genuen etorkizuna izango bazuen.

Gizartea bera ere aldatzen ari zen. Beste lurralde batzuetatik hurbildutako etorkin uholdeak euskara eta gure geroa itolarrian jarriko ote zuen beldur baginen ere, indar hartzen ari ziren ikastolak. Euskarazko testuak, ahal zen neurrian, itzulpenaren hesia gaindituz eginikoak, behar genituen, tokian tokiko hizkerak gaindituz, euskara batuaren moldean eginak.

Ez zen nolana hikoia euskal gizarteak aurrez aurre zeukan erronka. Geroak erakutsiko zuenez, ez zen tirabirarik gabeko ibilera izan. Garai hartako *Goiz Argi*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Agur* eta antzeko aldizkariak horra hor gertatu zenaren lekuko. Eskerrak, Koldo, hizkuntza gidaritzari eutsi zeniotenari. Eskerrak hain une erabakigarrian euskara bat egiteko arrastoa argi eta garbi marraztu zenutenari. Nahigabeak eta mindurak sortu baziren ere, benetan asmatu egin zenutela garbi ikusten da. Eskerrik

asko, orain hain normala ikusten den euskara batua ez baitzen ahuntzaren gauerdiko eztula izan.

Amaitu baino lehen, beste aitoren ttiki bat ere egin nahi dizut Koldo. Zure idazlanak gogoz aztertu nituen bolada batean. Joskeraren inguruan nagusiak ziren molde zurrinak gainditu nahi nituen eta zure idazkietan eskainitakoak eredu gisa hartzen nituen malgutasunez erabiltzen ikasi nahian. Ez nuen nahi bezainbat aurreraterik izan. Xabier Leteren lanetara ere jo nuen, baina alferrik. Ikasle eskasa izan duzu Koldo. Jakin badakit, ordea, barkatua nagoela.

Saio hau ez dut beste herritar baten lana eskertu gabe utzi nahi. Benetan aintzat hartzekoa eta eskertzekoa baita Koldo Mitxelena buruz Elixabete Perez Gazteluk eskaini zigun lan bikain mardula.



Andanzas y mudanzas de mi pueblo Evaristo Bozas Urrutiaren lanaren berrargitalpenaren aurkezpena. 1977ko uztailaren 11. Boni Otegiren bildumako argazkia.

Ezkerretik eskuinera: Juan Antonio Garmendia Elósegui, Caja Provincial de Guipúzcoa finantza entitatekoa; Evaristoren biloba (Rodolforen semea); Ramón Múgica (alkate ohia), Koldo Mitxelena eta Boni Otegi (*Oarso* aldizkariaren zuzendaria), Foru plazan (Portaviones izenekoan).



Aurkibideak

Índices

Artikuluen aurkibidea

Índice de artículos

Atarikoa	4
Euskararen batasuna eta estandarizazioa. <i>Miren Azkarate</i>	6
Koldo Mitxelenaren ekarpena literatura sailean. <i>Jon Casenave</i>	10
Mitxelena eta gramatika. <i>Patxi Goenaga</i>	14
Koldo Mitxelenaren ekarpena euskararen historiari. <i>Joseba A. Lakarra</i>	17
Ez dago gizonaz etsitzerik. <i>Anjel Lertxundi</i>	20
Torrekuatik: Mitxelena alboan. <i>Juan Ramon Makuso</i>	23
Mitxelena ahoskeraz. <i>Miren Lourdes Oñederra</i>	25
Koldo Mitxelena euskaltzain osoa Erreterian, 1961eko urtarrilaren 22an. <i>Elixabete Perez Gaztelu</i>	29
Koldo Mitxelena eta Joan Coromines: Hizkuntzalaritzak sortutako adiskidetasuna. <i>Josep del Rio</i>	34
Koldo Mitxelena, Unibertsitateko maisu handia. <i>Pello Salaburu</i>	38
La otra herencia de Koldo Mitxelena. <i>José María Sánchez, Txepetx</i>	41
Koldo Mitxelena hiztegiilea. <i>Ibon Sarasola</i>	45
Koldo Mitxelenari esker onez. <i>Mikel Ugalde</i>	48

Egileen aurkibidea

Índice de autores

<i>AZKARATE, MIREN.</i> Euskararen batasuna eta estandarizazioa	6
<i>CASENAVE, JON.</i> Koldo Mitxelenaren ekarpena literatura sailean	10
<i>GOENAGA, PATXI.</i> Mitxelena eta gramatika	14
<i>LAKARRA, JOSEBA A.</i> Koldo Mitxelenaren ekarpena euskararen historiari	17
<i>LERTXUNDI, ANJEL.</i> Ez dago gizonaz etsitzerik	20
<i>MAKUSO, JUAN RAMON.</i> Torrekuatik: Mitxelena alboan	23
<i>OÑEDERRA, MIREN LOURDES.</i> Mitxelena ahoskeraz	25
<i>PEREZ GAZTELU, ELIXABETE.</i> Koldo Mitxelena euskaltzain osoa Erreterian, 1961eko urtarrilaren 22an	29
<i>RIO, JOSEP DEL.</i> Koldo Mitxelena eta Joan Coromines: Hizkuntzalaritzak sortutako adiskidetasuna	34
<i>SALABURU, PELLO.</i> Koldo Mitxelena, Unibertsitateko maisu handia	38
<i>SÁNCHEZ, TXEPETX, JOSÉ MARÍA.</i> La otra herencia de Koldo Mitxelena	41
<i>SARASOLA, IBON.</i> Koldo Mitxelena hiztegiilea	45
<i>UGALDE, MIKEL.</i> Koldo Mitxelenari esker onez	48

